

Unibertsitateko
irakaskuntzarako
MgE-ren
baliabideak
2. LIBURUKIA

UNITATE DIDAKTIKOA 1

Garapen ekonomikoaren teoriak

UNITATE DIDAKTIKOA 2

Desazkundea

UNITATE DIDAKTIKOA 3

2030 Agenda: hurbilketa kritikoa



Economistas
sin Fronteras

Egilea: Elena Pérez Lagüela

Unibertsitateko irakaskuntzarako MgE-ren baliabideak

2. LIBURUKIA

Egilea: Elena Pérez Lagüela, Madrilgo Unibertsitate Europarra.

Enkarguz: Mugarik gabeko Ekonomilariak.

Edizioaren koordinazioa: M^a Luisa Gil Payno.

Argitaletxearen diseinua eta maketazioa: Mejor (www.somosmejor.es).

ISBN: 978-84-09-56840-6.

Finantzatzailea:



Argitalpen hau Espainiako Agentziaren Lankidetzaren finantzazioarekin egin da. Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren (aacid), 2021/PRYC/000656 "Unibertsitatean Agenda 2030a eta GJHak zeharkatzen". Argitalpen horren edukia egilearen erantzukizuna eskusiboa da eta argitalpen honen edukiek ez dute zertan MgE-ren eta AECID-en posizioarekin bat etorri behar, ezta ikuspegi instituzionalarekin ere.

Era berean, argitalpen honen euskarazko itzulpena UCM 2030 Behatokiak egin du Agenda 2030 Zuzendaritza Nagusiaren finantzaketarekin.



CC BY-NC-ND 4.0 CÓDIGO LEGAL

Atribución-NoComercial-SinDerivadas 4.0 Internacional

Obra hau Creative Commons lizentziapean dago. Libreki kopiatu, banatu eta obra honen berri eman daiteke, betiere egiletza aitortzen bada eta helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada. Ezin da obra honetatik eratorritako obra bat aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es>



Unibertsitateko Irakaskuntzarako MgE-ren baliabideak

Mugarik gabeko Ekonomialariak (MgE) Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea da, (GGKE), 1997an ekonomia justu, solidario, jasangarri eta feministan interesa zutenen unibertsitate eremuko personengatik sortua.

Mugarik gabeko Ekonomialariak-ek bizitza erdigunean jartzen duen beste garapen eredu bat beharrezkoa dela uste dugu; hala, Unibertsitatea eragile sozial eta ezagutza transmisoretzat hartzen dugunez, honek hau posible bihurtzeko funtsezko zeregina du.

Hainbat ikerketatan, unibertsitateek ezagutzarekin, irakaskuntzarekin, politikarekin eta erakundeen kudeaketarekin lotutako erronkei aurre egiteko har ditzaketen estrategiak eta ikuspegiak aztertu ditugu. Zailtasun horiek gaur egungo testuinguruan sortzen dira, elkarren artean konektatutako hainbat krisitan, eta erantzun posibleak askotarikoak eta heterogeneoak dira.

Irakaskuntzaren esparru espezifikokoaren oinarrizko erronka, ulermen egokia bultzatzen duten ikasketa prozesuak erraztea eta gaur egungo desfioei kritika egitea da, errealitatea eraldatu eta kolektiboki, biziltzaren jasangarrituasunean baterragarriak diren beste antolamendu ekonomiko eta sozial batzuk sortzeko.


Aipatutako guzti honetan laguntzeko MgE-ren Baliabideak izeneko unibertsitatara bideratutako irakaskuntza bilduma sortu da.

Material gehiago aurkitu ditzakezu bilduma [honetan](#).




Aurkibidea

Aurkezpena	6
1. Unitate Didaktikoa	
Enpresa transnazional handiak	9
1. Unitate didaktikoaren sarrera	10
2. Fitxa teknikoa	11
3. Gaiaren inguruko hurbilketa teorikoa	15
4. Erreferentzia bibliografikoak	18
5. Sekuentziazio didaktikoa	20
6. Eraitzen ebaluazioa eta balorazioa	31
2. Unitate Didaktikoa	
Desazkundea	34
1. Unitate didaktikoaren sarrera	35
2. Fitxa teknikoa	36
3. Gaiaren inguruko hurbilketa teorikoa	40
4. Erreferentzia bibliografikoak	44
5. Sekuentziazio didaktikoa	46
6. Eraitzen ebaluazioa eta balorazioa	63



3. Unitate Didaktikoa	
2030 Agenda: hurbilketa kritikoa	66
1. Unitate didaktikoaren sarrera	67
2. Fitxa teknikoa	68
3. Gaiaren inguruko hurbilketa teorikoa	72
4. Erreferentzia bibliografikoak	80
5. Sekuentziazio didaktikoa	82
6. Emaizen ebaluazioa eta balorazioa	89





Hitzaurrea

Garapenak, haren osagaiek eta horien artean ezartzen diren artikulazioek prozesu konplexu eta multidimentsional bat osatzen dute. Garapen ekonomikoari buruzko azterlanen helburu nagusia hau izan beharko litzateke: gizartea antolatzeko modurik mesedegarrienak borondate politiko irmo batekin bateratzea, pertsonen bizi-kalitatea eta baldintza materialak hobetzeko. Hala ere, planteamendu ekonomiko ortodoxoen eta, bereziki, doktrina neoliberalaren eraginak mugatu egin du diziplinaren baitan egindako azterketen sakontasuna, baita ezarritako politiken irismena ere.

Testuinguru horretan —zeinetan garapen ekonomikoko prozesuen ikuspegi ekonomizista eta marjinalista nagusi baita—, garapenari buruzko ikuskera garaikidea pobreziaren eta haren eraginaren, intentsitatearen eta banaketaren azterketara mugatu da, garapen-prozesuen berezko konplexutasuna alde batera utzita. Halaber, ez dirudi proposamenetan konpromisoa hartzen denik, ez sistema ekonomikoaren berrikuspen estrukturala egiteko, ez munduko egungo ordena ekonomikoak (eta horren osaera historikoak) ekonomia nagusien (garatuen) eta ekonomia periferikoen (garatu gabeen) garapen-ahalmenetan dituen ondorioak aztertzeke.

Azken batean, ikuspegi ortodoxo horrek baldintzatzen ditu garapenari buruzko azterketak, ahaztu egiten du ekarpen teorikoen eta aurretiko arau-esparruen aberastasuna, eta ikusezin bihurtzen eta ezesten ditu egungo proposamenak, sistema kapitalistaren egungo etapan gure bizimoduak antolatzeko modu konbentzionala zalantzan jartzen dutenak.

Premisa horiekin sortu eta antolatu dira jarraian aurkezten diren materialak. Irakaskuntza-unitateen multzo honetan, garapenari buruzko azterketaren hurbilketa bat eskaini nahi da, prozesuaren ikuspegi integral batetik eta garapenari buruzko azterketen diziplinak dituen erronkak kontuan hartuta, hiru azterketa-alderdi konbinatzen dituen proposamen bat erabiliz:

Lehenik eta behin, hurbilketa bat egingo dugu diziplinaren proposamen teoriko nagusietara, haren bilakaera testuinguruan jarri eta «garapen» kontzeptuaren bilakaera balora dezagun, narratiba funtzional gisa sortu zenetik joan den mendeko berrogeita hamarreko hamarkadako gerraosteko nazioarteko gizartearen egiturara, eta «garapen» kontzeptua bera zalantzan jartzearen inguruko egungo eztabaidetara.

Iradokitzen dugun bigarren alderdia desazkundearen proposamenarekin lotuta dago. Gaur egun, desazkundeari buruzko eztabaida puri-purian dago, bai esparru akademikoan, bai esparru politikoan. Horren erakusgarri da 2023ko maiatzean Europako Parlamentuan egindako *Beyond Growth* konferentzia. Orobat, Alberto Garzón Espinosa Espainiako Kontsumo ministroak gaiaren egoerari buruz egindako hausnarketak eta Espainiako zenbait alderdi politikoren eta sindikaturen zenbait dokumentuk agerian

uzten dute garrantzitsua eta egokia dela gure egungo bizimoduak naturan dituen ondorioei buruz eztabaidatzea; izan ere, bizimodu horrek bere horretan jarraituko du etorkizun hurbilean ere, ziur aski.

Azkenik, hirugarren hurbilketa egungo esparruan —nazioarte-mailako esparruan, 2030 Agendaren ezarpena dela eta— gure agentzia-ahalmena adierazten duten arau-mugei dagokie.

Hiru alderdi horietan oinarrituta, ikasgelan garatzeko hiru jarduera proposatzen ditugu. Egokitzeak jo dugu aurkezten ditugun materialetan arlo didaktikoa lehenestea, eta garrantzi handiagoa ematea gelan jarduerak egiteko jarraibideei eta gomendioei. Hau da erabaki horren azpian dagoen arrazoia: irakasleek, askotan, zailtasunak izaten dituzte, ikasturtean zehar, saio magistraletan jorratzen den alderdi kontzeptualaren alderdi aplikatua gauzatzeko ekimenak zehazteko. Edonola ere, jarduera-proposamen bakoitzarekin batera, bibliografia tematikoa doa, eta horretara jo daiteke eduki teorikoen azalpena osatzeko, beharrezkoa denean. Halaber, ikasgelaren edo irakasgaiaren beharretara egoki daiteke bibliografia; gainera, jarduerak ere alda daitezke, saio bakoitzaren edo irakasgai osoaren ikaskuntza-helburuetara egokitzeko. Gure proposamena, hain zuzen ere, hainbaten arteko proposamen bat da; hori dela eta, hura irakurtzen duena animatzen dugu egokia den ala ez baloratzera, eta hura desafiatzeko, eztabaidatzeko edo zalantzan jartzeko aske sentitzera, arlo kontzeptualean eta didaktikoan gero eta aberatsagoa den ondare kritikoa lortzen lagunduko baitu horrek.



UNITATE
DIDAKTIKOA

1

Garapen ekonomikoaren teoriak

1 Unitate didaktikoaren sarrera

Garapenaren teoria nagusietara hurbiltzeko proposamen bat aurkezten da irakaskuntza-unitate honetan, ikasleekin ikasgelan egindako lankidetzalana elementu antolatzaile gisa erabilia. Horretarako, garapenaren teoria nagusien sistematizazio bat eta sekuentziazio bat emango dira, eta «elur-pilota» jardueraren proposamen pedagogikoa azpimarratuko da, «elkarriketa-taldeen» elkarlaneko ikaskuntza-teknikaren aldaera gisa; izan ere, ikasleek egin beharreko lankidetzalana da irakaskuntza-unitate honen oinarria.

2 Fitxa teknikoa

Baliabidea erabiltzeko gomendatutako irakasgai espezifikoak

Baliabide hau egokia da garapenaren ekonomia, garapenerako politikak, ekonomia politikoa, munduko ekonomia, munduko egitura ekonomikoa, nazioarteko harremanak eta arloko azterlanak aztergai dituzten irakasgaietarako, edo garapenaren alderdi sozioekonomikoarekin eta ingurumen-alderdiekin lotutako irakasgaietarako. Hona hemen:

- Garapenaren ekonomia
- Garapenerako politikak
- Nazioarteko lankidetza eta garapena
- Lankidetzarako eta garapen sozialerako hezkuntza
- Garapen komunitarioa
- Ekonomia politikoa
- Espainiako eta munduko ekonomia
- Munduko egitura ekonomikoa
- Nazioarteko harremanak eta arloko azterlanak
- Geografia politikoa
- Ingurumenaren nazioarteko araubidea
- Ekologia eta kultura-prozesuak

Hartzaileak

- Lehen aipatutako irakasgaietako unibertsitateko irakasle eta ikasleak, bai eta edukien artean garapenaren edozein paradigma, ikuspegi eta teoriari buruzko erreferentziak dituzten beste irakasgai batzuetakoak ere, garapenaren gaia berariaz jorratu ez arren.

Helburu orokorrak

- Garapenari buruzko proposamen teoriko nagusiak ezagutzea.
- Garapenaren izaera multidimentsionala eta konplexua ulertzea.
- Garapenaren faktore erabakigarriak identifikatzea, ikuspegi bakoitzerako.
- Garapenari buruzko prozesu eta proposamenak ezagutzea eta baloratzea.

Helburu espezifikoak

- Garapenaren izaera ulertzeko ahalegin teoriko nagusiak aztertzea, ekarpenik berrienei arreta bereziz erreparatuta, eta proposamen horien iraunaldiari buruz eztabaidatzea.
- Garapen eta azpigarapen ekonomikoko prozesuen aldagairik garrantzitsuenen arteko erlazioak identifikatzea eta ulertzea.
- Azpigarapen ekonomikoa gainditzeko proposatutako zenbait tresna eta prozesu ezagutzea eta zalantzan jartzea.
- Hurbilketa teorikoek garapenerako identifikatutako oztopo estrukturalen eta hurbilketa bakoitzak oztopo horiek gainditzeko proposatutako estrategia eta politiken arteko loturan sakontzea.

Modalitateak eta metodologiak

- Estrategia metodologiko espositiboa:
 - Metodoak: azalpenezkoa, deduktiboa, analitikoa, autohezitzailea;
 - Teknika: esplorazio-galderak;
 - Helburuak: ikasleei ezagutzak eta jarrerak garatzen laguntzea.
- Estrategia metodologiko aktiboa:
 - Metodoa: elkarlana;
 - Teknika: elkarrizketa-taldeak;
 - Helburuak: ikasleen trebetasun eta jarreraren garapenean sakontzea.

Baliabide didaktikoak, materialak eta teknologikoak

Baliabide didaktiko gisa, hemen jasotzen den proposamena erabil daiteke, bai eta dokumentu honen 3.1 atalean orientazio gisa agertzen diren erreferentzia bibliografiko guztiak ere. Halaber, nahi adina erreferentzia erabiltzeko gonbit egiten zaie irakasleei, jarduera irakasgaiaren beharretara egokitzeko.

Denboralizazioa

Hemen deskribatzen den jarduera hiru saio osotan gauzatzeko pentsatuta dago: ikasgelan egin beharreko bi lan-saiotan —eta ikasleen prestakuntza-saioa, ikasgelatik kanpo bakoitza bere aldetik egin beharreko lanaren zati gisa— eta elkarlanaren emaitzak gainerako ikaskideei aurkezteko saio batean, amaitzeko.

Horrenbestez, garapenari buruzko korrante teoriko nagusiak azaltzeko saio teoriko gutxiago emateko erabil dezake irakasleak jarduera, eta, horri esker, ikasgelako elkarlaneko saioak optimizatzeko.

Jarduera egiteko lekua

Jarduera egiteko leku nagusia ikasgela da, edo, bestela, irakatsi eta ikasteko prozesua gauzatzen den beste esparru fisiko oro.

3 Gaiaren inguruko hurbilketa teorikoa

Atal honetan, garapenari buruzko eztabaida teorikoari zein enpirikoari egindako ekarpen nagusien kartografia proposatzen dugu. Alor horretako ekoizpen zientifikoa hain zabala denez, zaila da dauden proposamenen errepaso ulergarria eta zehatza egitea. Izan ere, neurri handi batean, arlo interstiziala da, hainbat diziplinak partekatzen dutena, hala nola ekonomiak, zientzia politikoak, soziologiak, historiak, geografiak eta nazioarteko harremanek. Hortaz, kapitulu honetan, zenbait hurbilketa teorikoren oinordeko diren proposamenak uztartu ditugu, literaturaren sorta adierazgarri bat emateko ahaleginean.

Ariketak bi helburu ditu: alde batetik, garapenari buruzko azterlanetan aurrera egiteko baliagarri izan diren eztabaida teorikoen eta ikerketa enpirikoen ikuspegi diakronikoa aurkeztu nahi dugu; bestetik, garapenari buruzko teorien bilakaeraren azalpen arrazoitua egiteko orientabide izan daitekeen kontzeptu-mapa bat sortzen saiatuko gara. Horrekin batera, jakintzaren ekoizpeneko zortzi etapa handiren eta bi arau-esparruren¹ inguruko literatura laburbiltzen ahalegindu gara. Garapenari buruzko gai nagusiak osatu dituzten eztabaiden arabera definitu dira etapa eta esparru horiek, garapen kontzeptua joan den mendearen erdialdean sortu zenetik:

- i) Batetik, *modernizazioaren teoria, estrukturalismo latinoamerikarra, inportazioen ordezkapenagatiko industrializazioa (IOI), mendekotasunaren teoria eta esportaziora bideratutako industrializazioa (EBI)*.
- ii) Bestetik, *neoliberalismoa, Washingtoneko Kontsentsua, Washingtoneko Kontsentsu-ostea, hurbilketa postdesarrollistak eta desazkundera*².

¹ Inportazioen ordezkapenagatiko industrializazioaren (IOI) eta esportaziora bideratutako industrializazioaren (EBI) arau-esparruak honexegatik sartu ditugu: esparru horiek eta berorien sorrera errazten duten proposamen teorikoak bereizi behar direlako, eta garapen-politiken bilakaerarako duten garrantzia aintzat hartu behar delako..

² Hain zuzen, liburu honetan, irakaskuntza-unitate bat eskaini zaio desazkunderaren gaiari.

Ildo horretan, neoliberalismoaren sorrera —proposamen politikoa, ekonomikoa eta ontologikoa den aldetik— inflexio-puntutzat har daiteke garapenari buruzko ikuspegien bilakaeran; bien bitartean, kontrairaultza neoliberalaren ondorengo ikuspegiek berezko eta beharrezko bilakaeratzat jotzen dute neoliberalismoa —eta bilakaera hori, azken batean, garapenaren diziplinaren behar berrietara egokitzeko berrikusi eta zuzendu beharko litzateke—, edo proposamen neoliberalaren kontra egiten dute, eta garapenaren diziplinaren barruan sortutako ortodoxia berrien kontra, hala nola hurbilketa neoinstituzionalistaren kontra. Horrexegatik erabiltzen da ikuspegi-multzo bataren eta bestearen arteko elementu banatzaile gisa³.

Ikuskera neoliberalak gaur egungo garapen-ikuspegietan izan duen eragin horrek ondorioak izan ditu garapenari buruzko azterketen ekoizpen zientifikoan; izan ere, bai azterlan horiek bai horiek babesten dituzten dokumentuak deskribatzaileagoak dira, azalekoagoak diagnostikoetan, eta pragmatikoagoak gomendioetan (Ramírez-Cendrero, 2008b). Hori dela eta, esan daiteke ondoren garatutako ikuspegien proposamen teorikoa ez dela hain aberasgarria, postdesarrollismoaren eta desazkundearen aldeko hurbilketen kasuan izan ezik.

Garapenaren inguruko ikuspegien eta eztabaida nagusien edukien funtsezko eta berezko elementuak sistematizatzeko eta biltzeko, Hidalgo Capitán (2010), López Castellano (2007), Ramírez Cendrero (2008a) eta Rist (2002) egileen lanak erabil ditzakete irakasleek.

³ Nolanahi ere, ikuspegiak bi kategoriaren inguruan multzokatze hori zalantzan jarri, berrikusi eta aldatu egin daiteke, kontuan hartuta zer ikuspegitatik lan egiten den eta jarduera dagokion ikasturtearen testuingurura egokitzeko zer premia dauden.

Arestian aipatutako ikuspegi bakoitzaren postulatu teorikoetan sakontzeko, ikasleek egile hauen lanetara jo dezakete: Bustelo (1999), Cypher eta Dietz (2009), Krugman eta Wolfson (1996), Madrueño eta Martínez-Osés (2009), Payne eta Phillips (2012), Peet eta Hartwick (1999), Todaro eta Smith (2006), Unceta Satrustegui (2009), eta Veltmeyer eta Bowles (2018). Hainbat sakonera-mailatako ibilbidea eta hainbat azterketa-proposamen eskaintzen dira lan horietan, eta, modu osagarrian landuta, proposatutako ikuspegi bakoitzari buruzko esparru integrala eta ulergarria jartzen dute ikasleen eskura.

4 Erreferentzia bibliografikoak

- Bustelo, P. (1999): *Teorías contemporáneas del desarrollo económico*, Madril, Síntesis.
- Cypher, J. M. y Dietz, J. L. (2009): *The Process of Economic Development*, Nueva York, Routledge.
- Hidalgo Capitán, A. L. (2010): “Economía política del desarrollo. La construcción retrospectiva de una especialidad académica”, *Revista de Economía Mundial*, núm. 28, pp. 279-320.
- Krugman, P. y Wolfson, L. (1996): “Los ciclos en las ideas dominantes con relación al desarrollo económico”, *Desarrollo Económico*, vol. 36, núm. 143, pp. 715-731.
- López Castellano, F. (2007): «Pensamiento económico y desarrollo, la pérdida gradual de la certeza», en *Desarrollo: crónica de un desafío permanente*. Granada: Periferia/Granadako Unibertsitatea: 5-57.
- Madrueno, R. y Martínez-Osés, P. (2019): “Development Studies in Spanish: A Critical and Constructive Response from the Peripheries”, en Baud, I., Basile, E., Kontinen, T., von Itter, S. (arg.): *Building Development Studies for the New Millennium*, EADI Global Development Series, Londres, Palgrave Macmillan.
- Payne, A. y Phillips, N. (2012): *Desarrollo*, Madril, Alianza.
- Peet, R. y Hartwick, E. (1999): *Theories of Development*, Londres, The Guilford Press.

Ramírez Cendrero, J. M. (2008a): “Génesis y evolución de la idea de desarrollo. De la inevitabilidad del desarrollo al debate sobre su pertinencia”, en Puerto Sanz, L. M. (koord.): *Economía para el desarrollo. Lecturas desde una perspectiva crítica*. Madril, Los Libros de la Catarata, pp. 23-78.



Ramírez Cendrero, J. M. (2008b): “Las nuevas propuestas sobre el desarrollo. Viejos y nuevos elementos desde los años noventa”, en Puerto Sanz, L. M. (koord.): *Economía para el desarrollo. Lecturas desde una perspectiva crítica*, Madril, Los Libros de la Catarata, pp. 79-134.

Rist, G. (2002): *El desarrollo: historia de una creencia occidental*, Madril, Los Libros de la Catarata.

Todaro, M. P. y Smith, S. C. (2006): *Economic Development* (11. argitalpena). New York: Addison-Wesley.

Unceta Satrústegui, K. (2009): “Desarrollo, subdesarrollo, maldesarrollo y postdesarrollo”, *Carta Latinoamericana* 7.

Veltmeyer, H. y Bowles, P. (eds.) (2018): *The essential guide to critical development studies*, Londres, Routledge.



5 Sekuentziazio didaktikoa

Jarduera honetarako aurreikusitako iraupena bi ikastorduko hiru klasekoa da. Klase bat irakaslearen ardurapean egongo da, eta gainerako biak, ikasleen ardurapean.

Lehenik eta behin, irakasleak hasierako jarraibideak azalduko ditu. Irakaslea bigarren mailan egongo da hirugarren saiora arte, irakaskuntza-unitatea ixteko erabiliko den saiora arte, hain zuzen. Horretan, ikuspegi bakoitzaren ekarpen nagusiak sistematizatuko dira, identifikatutako antzekotasunak eta desberdintasunak nabarmentzeko, eta garapenari buruzko ekarpenik berrienen bilakaera teorikoa aztertzeko.

Bigarrenik, ikasleek jarraian proposatzen den ariketa egin beharko dute. Behar bezala egiteko, bi saioetako bat, gutxienez, ikasgelan elkarlanean aritzeko baliatu beharko litzateke, ikasleen artean elkarrizketa bat sortadin. Irakaslea bertan egongo da, gaiak azaltzeko, zalantzak argitzeko edo jarduerarako beharrezkotzat jotzen dituen alderdiak azpimarratzeko. Orobat, ikasleek bakarka egin beharreko lanaren zati bat jarduera egiteko erabil daiteke.

Jarduera: hautatutako garapen-teoriak, ikuspegiak eta arau-esparruak aurkeztea, «elur-pilotako elkarrizketa» formatuari jarraituz (Brookfield eta Preskill, 1999).

Deskribapena eta xedea

«Elur-pilotako elkarrizketa» elkarlanean ikasteko teknikaren aldaera bat da; hain zuzen, «elkarrizketa-taldeak» teknikarena. Elkarrizketa-taldeak lau eta sei pertsona bitarteko taldeak dira, jarduerak irauten duen bitartean aldatuko ez direnak. Proposamen honetan, talde guztiek zenbait galderari erantzungo diete. Galdera berak dira talde guztientzat, baina badaude beste modalitate batzuk, Barkleyri eta besteei (2007: 95-97) jarraituz erabil daitezkeenak. «Elur-pilota» formatuko elkarrizketa-taldeen aldaeran, hainbat talde txiki elkartzen dira ondoz ondoko faseetan; hau da, fase bakoitzean, ikasle eta ideia berriak gehitzen zaizkie taldeei, denbora laburrean informazio zabala sortzeko.

Informala izateko pentsatuta dago elkarrizketa; helburua ez da adostasuna lortzea, ikasleek ideiak trukatzeko baizik. Eskuarki, Barkleyk eta besteek (2007: 95) adierazten dutenez, elkarrizketa-taldeek (eta elur-pilotako elkarrizketaren aldaerak) klase osoaren elkarrizketa prestatzeko balio dute, eta denbora gutxian informazioa eta ideiak sortzeko eraginkorrak dira.

Talde txikitik banatuta, ikasleek parte hartzeko segurtasun handiagoa sentitzen dute; izan ere, talde txikitik lan egiteak ikasle guztien parte-hartzea ahalbidetzen du, gutxiago beldurtzen baitira klaseko ikasle guztiek osatutako taldearen aurrean baino, esaterako.

Gainera, elkarrizketa bideratzen eta elkarrizketa-taldean ideien eta hausnarketen kopurua handitzen laguntzen denez, gainerako ikasleekiko elkarrizketa aberatsagoa eta parte-hartzaileagoa izaten da.

Prestakuntza

Jarduera egin aurreko astean, irakasleak 4 eta 6 pertsona bitarteko taldeak osatu behar dituztela jakinaraziko die ikasleei. Ez da komeni taldeek kide gehiago izatea; hau da, taldeen tamaina txikia errespetatu beharko litzateke. Klasean ikasle gutxi badago, jarduera bikoteka egin daiteke.

Jardueraren lehen saioa hasteko, irakasleak elkarrizketarako hasierako jarraibideak azaldu beharko ditu; zehazki, jarraibideok eztabaida eta kontzeptuen berrikuspena sustatu behar dituzte, batik bat. Diapositibak proiektatuz edo PDF edo Word formatuko dokumentuen bidez aurkez daitezke jarraibideak. Edonola ere, ikasleen eskura jarri behar dira une oro, campus birtualaren edo antzeko plataformen bidez, behar dutenean kontsulta ditzaten. Jarraibide hauek adibide gisa erabil daitezke:

Edukiak

1. Modernizazioaren teoria, estrukturalismo latinoamerikarra, inportazioen ordezkapenagatiko industrializazioa (IOI), mendekotasunaren teoria, esportaziora bideratutako industrializazioa (EBI).
2. Neoliberalismoa, Washingtoneko Kontsentsua, Washingtoneko Kontsentsu-ostea, hurbilketa postdesarrollistak eta desazkundera.

Nola jokatuko dugu?

Talde bakoitzak teoria edo arau-esparru **BAT** aukeratu behar du aurreko diapositibako zerrendetatik.

Teoriak taldeen artean banatu ondoren, hautatutako ikuspegiari buruzko informazioa bilatu beharko duzu. Horretarako, emandako erreferentziak erabil ditzakezu, edo fidagarritzat jo daitezkeen beste batzuk (liburuak eta artikulak akademikoak).

Gainera, taldekideekin batera, aurkezpena prestatuko duzu; aurkezpena talde bakoitzeko kide batek egin beharko du. Lau elementu sartu behar dituzue aurkezpenean:

- >> Teoria edo arau-esparru hori sortu deneko testuinguru historiko eta politikoa.
- >> Teoria edo arau-esparru horren oinarritzko printzipioak edo postulatuak.
- >> Garapenerako identifikatzen diren oztopoak eta horiek gainditzeko proposatzen diren neurriak.
- >> Egilerik adierazgarrienak.

Kontuan izan aurkezpenak bost minutu iraun behar duela gehienez. Edukiak aurkezteko, ez da beharrezkoa inolako euskaririk (PowerPoint edo Prezi) erabiltzea.

Prozedura

Lehen saioa

1. Jardueraren *lehen saioan*, talde txikiak eratuko dira. Irakasleak hasierako jarraibideak azaldu eta jarduera egiteko denbora antolatuko du. Ikasleei azaldu behar zaie «elur-pilota» formatuko dinamika bat egingo dela, eta, horren arabera, taldeak ondoz ondoko faseetan elkartuko direla, azken fasera iritsi arte, non ideiak talde handian aurkeztuko diren. Azken fase horretarako, talde bakoitzak ordezkari bat aukeratu beharko du, gainerako ikasleei helaraz diezaien bildutako informazioa.
2. Jardueraren *lehen fasean*, ikasleek, 4 eta 6 pertsonako talde txikietan antolatuta, hautatutako teoriaren, ikuspegiaren edo arau-esparruaren aurkezpena prestatzen hasi behar dute; horretarako, lortutako informazioa laburbiltzen saiatu behar dute, funtsezko lau elementuen aurkezpena ezarritako bost minutuetara egokitzeke.

Lehen saioaren helburua talde guztiak antzeko abiapuntutik hastea da, ezagutza-mailari dagokionez. Inork ez du aldez aurretik bakarka lan egin behar, eta espero da hasierako maila horretan ikasle guztiek ahalik eta berdintasunik handienean ekin ahal izatea ikasgelako lanari. Hori dela eta, lehen saioan, taldeak eratu eta teoriak banatzen dira aldi berean. Azken batean, ikasgelako lanari esker, irakasleak talde bakoitza gainbegiratu ahal izango du, ikasle guztiek aukera berdinak izan ditzaten lan-denborari dagokionez, eta ikasgelan

elkarlana sustatuko da, ikasleek informazio garrantzitsua bilatu eta azterketa- eta sintesi-trebetasunak praktika ditzaten.

Proposamen horren aldaera batek beste formatu bat erabiltzeko aukera ematen du: irakasleak oinarrizko testu bat emango die ikasleei, klasea hasi aurretik (edo hasierako klasean) irakurri eta teoriak ezagutu ditzaten. Testua hauxe izan daiteke: CYPHER, DIETZ (2009). «Theories of development and underdevelopment», in Cypher, Dietz (2009). The Process of Economic Development (3. argitalpena). Londres: Routledge.

Bigarren saioa

3. Jardueraren *bigarren saioa* ikasgelan talde txikietan lan egiten jarraitzeko erabil daiteke. Saioaren lehen zatian, talde txikietan egin daiteke lan. Horrenbestez, ikasleek talde txikien bidezko lana amaitu ondoren, saioaren bigarren zatian, jardueraren bigarren faseari hel dakioke.
4. Jardueraren *bigarren fasean*, talde txiki bakoitza beste talde txiki batzuekin elkartuko da, eskema honi jarraituz:
 - i) Modernizazioaren teoria, estrukturalismo latinoamerikarra, mendekotasunaren teoria.
 - ii) IOI, EBI.
 - iii) Neoliberalismoa, Washingtoneko Kontsentsua, Washingtoneko Kontsentsu-ostea.
 - iv) Hurbilketa postdesarrollistak – desazkundera.

Talde txikiak lau talde ertain horietan elkartuta, ikasleek, elkarlanaren bidez, teoriak ondoz ondo elkartzean identifikatutako antzekotasunak eta desberdintasunak sistematizatzea lortu nahi da. Lau talde ertain horiek berriro elkar daitezke tamaina handiagoko bi taldetan, egitura honen arabera:

- i) Modernizazioaren teoria, estrukturalismo latinoamerikarra, inportazioen ordezkapenagatiko industrializazioa (IOI), mendekotasunaren teoria eta esportaziora bideratutako industrializazioa (EBI).
- ii) Neoliberalismoa, Washingtoneko Kotsentsua, Washingtoneko Kotsentsu-ostea, hurbilketa postdesarrollistak eta desazkundera. Ikasleek garapenaren teoria, ikuspegi eta arau-esparru klasikoen elementu bereizgarriak identifika ditzaten erabil daiteke bigarren elkartze hori, eta kontrairaultza neoliberaletik sortutako teoria, ikuspegi eta arau-esparruekin eta beste proposamen garaikide batzuekin aldera ditzaten.

Hirugarren saioa

5. Jardueraren *hirugarren fasean* —alegia, *hirugarren saioan*—, talde bakoitzak landutako teoria, ikuspegia edo arau-esparrua aurkeztuko die gainerako ikasleei. Horretarako, talde bakoitzak aukeratutako ordezkariak teoria, ikuspegia edo arau-esparrua aurkezteko ezarritako bost minutuetara mugatu beharko du. Talde bakoitzeko ordezkariak taldeak jorratutako teoriaren funtsezko elementuak aurkeztuko dituzenez, teoria, ikuspegi eta arau-esparru guztien bilakaera


identifikatu eta sistematizatu ahal izango da, bai eta haien sorrera, ekarpen nagusiak eta aurreko zein ondorengo teoria, ikuspegi eta arau-esparruekin dituzten antzekotasunak eta desberdintasunak testuinguruan kokatu ere.

Irakasleak aprobetxatu egin dezake aurkezpen bakoitza egokitzen jotzen dituen elementuekin osatzeko, ikuspegi bakoitzari buruzko funtsezko informazioa gainerako ikaskideei helarazten zaiela ziurtatzeko eta aurkezpeneko lau elementuei buruzko informazioa osatzeko, osatu gabe badago edo argi geratu ez bada. Hona hemen lau elementuak: (a) teoria edo arau-esparrua sortu deneko testuinguru historiko eta politikoa; (b) teoriaren edo arau-esparruaren oinarrizko printzipioak edo postulatuak; (c) garapenerako identifikatzen diren oztopoak eta horiek gainditzeko proposatzen diren neurriak, eta (d) egilerik adierazgarrienak.

Aurkezpenak amaitu ondoren, irakasleak saioan sobera geratu den denbora erabil dezake talderik handienetan sortutako eztabaidetan sakontzeko eta denen artean horiei buruz aritzeko. Horri esker, eztabaida bakoitzaren sorreraren une historikoak, kausak, araudi-mailako inplikazioak, politika-mailan dituen efektuak eta garapen ekonomikoari dagokionez dituen ondorioak hobeto jarriko dituzte testuinguruan. Adibide zehatzekin azal daiteke hori —esaterako, neoliberalismoak 1980ko zorraren krisiari emandako erantzunak

Latinoamerikako eta Saharaz hegoaldeko Afrikako ekonomietan eragindako doikuntza estrukturaleko politiken efektuak azalduz—, edo dagokion ikasturtearen eduki zehatzekin lotu daiteke, herrialde edo eskualde zehatzetan teoriak aplikatzea eragin zuten kausetan edo teoriak izandako ondorioetan sakontzeko.

Taula honetan, saio eta fase bakoitzeko lana eta bakoitzaren helburuak jasota daude, laburbilduta:



SAIOA	FASEA	HELBURUAK
Lehena	Lehena: teoriaren, ikuspegiaren edo arau-esparruaren aurkezpena prestatzea. Garrantzizko informazio kualitatiboa bilatzea.	Talde txikiak eratzea eta hautatutako teoriaren, ikuspegiaren edo arau-esparruaren aurkezpena prestatzea.
Bigarrena	Bigarrena: aurkezpena prestatzen amaitzea. Talde txikiak talde ertainetan elkartzea. Eztabaida.	Ikasleek talde txikietan lanean jarraituko dute, aurkezpena prestatzeko fasea bukatutzat eman arte. Ondoren, talde txikiak talde ertainetan elkartuko dira, eskema honi jarraituz: - i) Modernizazioaren teoria, estrukturalismo latinoamerikarra, mendekotasunaren teoria. - ii) IOI, EBI. - iii) Neoliberalismoa, Washingtoneko Kontsentsua, Washingtoneko Kontsentsu-ostea. - iv) Hurbilketa postdesarrollistak, desazkundea. Elkartze horren helburua da talde txikietan eztabaida sustatzea eta ekarpen teorikoen artean dauden elementu komunak edo bereizgarriak identifikatzea. Beste elkartze bat egin daiteke, eta tamaina handiagoko bi talde eratu, egitura honen arabera: - i) Modernizazioaren teoria, estrukturalismo latinoamerikarra, inportazioen ordezkapenagatiko industrializazioa (IOI), mendekotasunaren teoria eta esportaziora bideratutako industrializazioa (EBI). - ii) Neoliberalismoa, Washingtoneko Kontsentsua, Washingtoneko Kontsentsu-ostea, hurbilketa postdesarrollistak eta desazkundea.
Hirugarrena	Hirugarrena: teoria, ikuspegi eta arau-esparru bakoitza talde handiari aurkeztea, ordena kronologikoan, proposamen klasikoetatik forma garaikideetara.	Aurreko saioetan ekarpen teoriko bakoitzaren ezaugarri nagusiak identifikatzen lan egin ondoren, saio honen helburua da garapenaren teoria bakoitzaren ekarpenak laburbiltzea, denen artean teoria guztien mapa orokorraren puzzle handi bat balitz bezala. Teoriak elkarren segidan aurkezteak aukera ematen du ikuspegiaren arteko antzekotasun eta desberdintasun nagusiak sistematizatzeko, baita etapa bakoitzeko jarraitutasun-elementuak, inflexio-puntuak eta hausturak identifikatzeko ere.

Oharrak

Azken saioan, taldeko bozeramaileak edukiak aurkeztu behar ditu, eta, beraz, garrantzitsua da aurkeztu beharreko edukiak laburbiltzea eta irakasleak funtsezko elementuak biltzea, gai garrantzitsurik aipatu gabe gera ez dadin.

Erreferentzia bibliografikoak

Barkley, E. F., Cross, K. P. y Major, C. H. (2007): *Técnicas de aprendizaje colaborativo. Manual para el profesorado universitario*, Madril, Morata.

Brookfield, S. D. y Preskill, S. (1999): *Discussion as a way of teaching: Tools and techniques for democratic collaborative learning classrooms*, San Frantzisko, Jossey-Bass.

6 Emaizten ebaluazioa eta balorazioa

Jarduera honetan, elkarren osagarriak diren bi ebaluazio-modalitate erabil daitezke aldi berean:

- a) Ebaluazio formatiboa, prozesuala edo jarraipenekoa. Prozesuan zehar egiten da, eta aukera ematen du jardueraren testuinguruan izandako bilakaera ezagutzeko, taldeek ikasgelan egiten duten lanaren jarraipena eginez. Halaber, prozesua berrikusteko eta, beharrezkoa izanez gero, birbideratzeko aukera ematen du, jardueran lan egin ahala ikasleengan identifikatzen diren premiei edo gabeziei buruzko informazioa ematen baitu.
- b) Ebaluazio sumatiboa edo azken ebaluazioa. Jardueraren helburuen lortze-mailari eta jarduerarekin lortu nahi izan denari buruzko informazioa ematen digu. Jardueraren emaitzak neurtzen ditu, eskuratutako ezagutzei eta bereganatutako edukiei dagokienez, eta jardueraren egokitasuna baloratzeko balio du. Ebaluazio formatiboarekin batera, jarduera berriro formulatzeko eta hurrengo edizioetan ikasturtearen beharretara egokitzeko erabil daiteke.

Irakasleek egin behar dituzte bai ebaluazio formatiboa bai ebaluazio sumatiboa. Ikasleen gaitasunak eta trebetasunak ebaluatzeko orduan, taldean lan egiteko eta laburbiltzeko gaitasunak hartu behar dira kontuan, bai eta diziplinartekotasunez lan egiteko eskuratutako trebetasunak ere.


Hona hemen [errubrika](#) bat, ikasleek lortutako ezagutzak ebaluatzeko irakasleek eredu gisa erabil dezaketena⁴:

⁴ Ebaluazioa egiterakoan, aintzat hartu behar da talde bakoitzaren aurkezpena ikasgelan egindako hainbat elkarlan-saioren eta talde bakoitza osatzen duten pertsona guztien ahaleginaren emaitza dela. Gainera, irakaslea ikasgelako lan-saioetan egon denez, talde bakoitzaren lanaren ebaluazio gehigarria egin dezake, saio bakoitzean izandako inplikazioaren arabera. Errubrika aurkezpena eta ebaluazio kontzeptuala ebaluatzeko pentsatuta badago ere, jarrerak eta trebetasunak saio guztietan ebalua daitezke. Izan ere, ikasgelako lanaren autoebaluaziorako materialak eman dakizkieke ikasleei; autoebaluazio-test bat izan daiteke. Testa betetakoan, irakasleari emango diote, eta horrek banakako azken notarako kontuan hartu ahal izango du.

IRAKASLEEK IKASLEEN EZAGUTZAREN JABEKUNTZA EBALUATZEKO EREDU GISA ERABIL DEZAKETEN ERRUBRIKA

	Bete gabe	Txarra	Ona	Oso ona	Bikaina
Gairako garrantzitsuak diren kontzeptuak eta nozioak egoki erabiltzea	Ez ditu ikerketa-arlorako edo aztergairako garrantzitsuak diren kontzeptuak edo nozioak erabiltzen.	Egoki erabiltzen ditu ikerketa-arlorako edo aztergairako garrantzitsuak diren kontzeptuak eta nozioak, baina modu jeneralistan zerrendatu besterik ez du egiten, analisisasuarekin duten lotura zehaztu gabe.	Behar bezala erabiltzen ditu ikerketa-arlorako edo aztergairako garrantzitsuak diren kontzeptuak eta nozioak, eta analisi-kasura egokitzen ditu	Behar bezala erabiltzen ditu ikerketa-arlorako edo aztergairako garrantzitsuak diren kontzeptuak eta nozioak, analisi-kasura egokitzen ditu eta informazio gehigarriarekin osatzen ditu.	Behar bezala erabiltzen ditu ikerketa-arlorako edo aztergairako garrantzitsuak diren kontzeptuak eta nozioak, analisi-kasura egokitzen ditu, informazio gehigarriarekin osatzen ditu eta analisisa bere esperientziara eramaten du; hau da, ikaskuntza-prozesua adierazgarria izatea lortzen du.
Aurkezpen argia eta egokia	Lanaren aurkezpena desagokia da, eta ez du ordenarik, edo ez dago modu argi eta koherentean idatzita. Ez dago idazkirik; binetak bakarrik erabili dira.	Lanaren aurkezpena desagokia da, eta ez du ordenarik, edo ez dago modu argi eta koherentean idatzita. Idatzizko lana laburra da.	Lanaren aurkezpena egokia da, baina ez dago modu argi eta koherentean idatzita. Idatzizko lana laburregia edo gehiegizkoa da.	Lanaren aurkezpena egokia da, eta modu argi eta koherentean idatzita dago. Idatzizko lana egokia da.	Lanaren aurkezpena egokia eta ordenatua da, eta modu argi eta koherentean idatzita dago. Idatzizko lana aproposa da.
Egitura	Ez du egiturarik.	Egitura ahula: ideiak nekez ulertzen dira.	Oinarrizko egitura: ideiak nabarmendu dira.	Egitura ona: ideiak eta testuaren gorputza, horiekin lotuta.	Ideien egitura argia eta ordena egokia: erraz irakurri eta uler daiteke.
Talde-lana	Ez du parte hartzen/ez da sartzen eztabaida aktiboetan beste ikasle batzuekin. Oso ekarpen txikia egiten dio eztabaidatutako gaiari.	Oso konpromiso txikia du, edo bat ere ez, beste ikasleekiko eztabaidan. Oso ekarpen txikia egiten du eta nekez ulertzen ditu gaiaren funtsezko printzipioak.	Konpromiso txikia du baina funtsezko kontzeptuak ezagutzen eta ulertzen dituela erakusten du.	Asko laguntzen du gaian, eta harreman ona izan du ikaskideekin.	Asko lagundu du kontzeptu guztietan, eta aktiboki eta sakon jardun du ikaskideekin lankidetzan.

Orobat, autoebaluazio-ariketa bat egitea iradoki dakieke ikasleei, euren ikaskuntza-prozesuan izandako bilakaera balioesteko, eskuratutako ezagutzetan oinarrituta. Are gehiago, ikasleek beste taldeen ebaluazio kolektiboan lagun dezakete, aurkezpenek elkarren artean eta jarduera osoarekiko duten koherentziari erreparatuz.




UNITATE
DIDAKTIKOA

2

Desazkundera

1 Unitate didaktikoaren sarrera

Irakaskuntza-unitate honetan, desazkundearen azterketaren hurbilketa bat egitea proposatzen da, solasaldi dialogikoaren teknika didaktikoaren bidez. Horretarako, desazkundeari buruzko sarrera teoriko orokor bat emango da, bai eta gai horri buruz gomendatutako bibliografia ere. Halaber, solasaldi dialogikoaren teknika didaktikoarekin batera, baliabide didaktiko hori ikasgelan ezartzeko erabil daitekeen obra bat proposatzen da.



2 Fitxa teknikoa

Baliabidea erabiltzeko gomendatutako irakasgai espezifikoak

Baliabide hau egokia da garapenaren ekonomia, garapenerako politikak, ekonomia politikoa, munduko ekonomia, zientzia politikoa, nazioarteko harremanak eta arloko azterlanak aztergai dituzten irakasgaietarako edo ingurumenaren giza alderdiekin eta alderdi sozioekonomikoekin lotutako irakasgaietarako. Hona hemen:

- Garapenaren ekonomia
- Garapenerako politikak
- Nazioarteko lankidetza eta garapena
- Lankidetzarako eta garapen sozialerako hezkuntza
- Garapen komunitarioa
- Ekonomia politikoa
- Espainiako eta munduko ekonomia
- Zientzia politikoa
- Nazioarteko harremanak eta arloko azterlanak
- Geografia politikoa
- Ingurumenaren nazioarteko araubidea
- Ekologia eta kultura-prozesuak

Hartzaileak

- Arestian aipatutako irakasgaietako unibertsitateko irakasle eta ikasleak. Hala ere, irakasgai horietarako ez ezik, hauetarako ere baliagarria izan daiteke: batetik, desazkundearen gaia berariaz jorratu gabe egungo eredu produktiboa eta sistema ekonomikoa zalantzan jartzen dituzten proposamen politikoak lantzen dituzten irakasgaietarako, eta, bestetik, desazkundearen aldeko planteamenduetan artikulazio politiko kolektiborako elementu suspergarriak aurki ditzaketen gizarte-mailako proiektu emantzipatzaileak aztertzen dituzten irakasgaietarako.

Helburu orokorrak

- Desazkundearen proposamen teorikoa zein den ikastea.
- Desazkundearen aldeko planteamenduak zer testuingurutan sortzen diren ulertzea.
- Garapen kapitalistari egindako kritiketatik, desazkundearen aldeko proposamenen oinarri direnak identifikatzea eta baloratzea.

Helburu espezifikoak


- Desazkundearen ahalegin teorikoa aztertzea, garapen kapitalistaren prozesuak zalantzan jartzeko.
- Desazkundearen aldeko planteamenduen inguruko alternatiba politikoak proposatzea.

Modalitateak eta metodologiak

- Estrategia metodologiko espositiboa:
 - Metodoak: azalpenezkoa, deduktiboa, analitikoa, autohezitzailea;
 - Teknika: esplorazio-galderak;
 - Helburuak: ikasleei ezagutzak eta jarrerak garatzen laguntzea.
- Estrategia metodologiko aktiboa:
 - Metodoa: elkarlana;
 - Teknika: solasaldi dialogikoa, taldetan;
 - Helburuak: ikasleen trebetasun eta jarreraren garapenean sakontzea.

Baliabide didaktikoak, materialak eta teknologikoak

Baliabide didaktiko gisa, hemen jasotzen den proposamena erabil daiteke, bai eta dokumentu honen 3.1. atalean orientazio gisa agertzen diren erreferentzia bibliografiko guztiak ere. Halaber, nahi adina erreferentzia erabiltzeko gonbit egiten zaie irakasleei, jarduera irakasgaiaren beharretara egokitzeko.



Denboralizazioa

Hemen deskribatzen den jarduera bost saio osotan gauzatzeko pentsatuta dago. Saio-kopurua aldatu egin daiteke, irakasgaiaren beharren eta jarduerarako gomendatutako liburuaren kapituluaren arabera.

Saioek mintegi-formatua izango dute, eta lankidetzaz-lantaldeen inguruan antolatuko dira. Horrenbestez, irakasgaiaren klase teorikoen osagarri praktikoa gisa erabil daiteke jarduera, ikasturtean zehar jarduera-sorta zabalagoa izateko.

Jarduera egiteko lekua

Jarduera egiteko leku nagusia ikasgela da, edo, bestela, irakatsi eta ikasteko prozesua gauzatzen den beste esparru fisiko oro.



3 Gaiaren inguruko hurbilketa teorikoa

Desazkundeari eskainitako arreta, proposamen politiko eta ikerketa-arlo gisa, handituz joan da pixkanaka, eta nabarmen handitu da azkenaldi honetan; izan ere, gai nagusietako bat da foro akademikoetan —ikusi Weiss, Cattaneo (2017); Hanacek *et al.* (2020); Fitzpatrick *et al.* (2022)— zein foro politikoetan. Azken horren erakusgarri gisa, honako hauek baliagarriak dira, besteak beste: Europako Parlamentuan egindako [Beyond Growth 2023](#) konferentzia; «Decrecer para vivir» manifestua, Izquierda Unidarena, desazkundera sustatzen duen taldeak egin (2022), eta «Los límites del crecimiento: ecosocialismo o barbarie» artikulua, Alberto Garzón Espinosa Espainiako Gobernuako Kontsumo ministroak sinatua (2022).

Postdesarrollismoaren teoriariek eta ekonomialari ekologikoek —Jackson (2009), Kallis (2018), Latouche (2009) eta Trainer (2012), besteak beste— enuntziatu zuten lehen aldiz desazkunderaren ideia. Horiek guztiek elementu komun bat proposatzen dute: ekonomia globaleko, eta, zehazki, sistemako ekonomia zentraletako —hain zuzen, per capita kontsumo-maila handia dutenak (Hickel, 2019)— fluxu material eta energetikoak murriztea, eta kontsumo-gizarte kapitalistaren funtsezko egitura eta sistemak ordezkatu gabe gizarte gogobetegarria lortzea ezinezkoa dela aitortzea (Trainer, 2012).

Desazkunderaren aldeko proposamen guztietan, garapenean bertutea⁵ ikusten duen logika ekonomiko mekanizista —tradizionalki, teoria ekonomiko konbentzionalaren oinarria— gainditzeko borondatea identifika daiteke. Garapenerako hurbilketa ortodoxo hori —garapena mugarik

⁵ Hain zuzen ere, Garzón Espinosak (2022) dioten bezala, «hazkunde ekonomikoaren nozioa bera gizarte aurrerapenaren nozioari lotuta» dagoelako.

gabeko hazkunde ekonomikotzat hartua— agerian geratzen da «garapen jasangarria» esamoldearen normalizazioarekin. Esamolde horrek, 1987ko Brundtland Txostenean sortuak, nolabaiteko geruza berde bat eranstendio garapenari buruzko ikuspegi konbentzionalari, baina ez du ezeztatzen⁶, nahiz eta bateraezina izan planetaren mugak errespetatzearekin.

Nolanahi ere, desazkundearen esanahia aldatuz joan da. Hasieran, baliabideen erabilera murrizteko ingurumen-kezka adierazten zuen. Ondoren, garapenaren, kapitalismoaren eta hazkunde ekonomikoaren aurkako mugimendu emantzipatzaileek erabili zuten, eta, azkenik, proiektu utopiko bihurtu da (Parrique, 2019:171). Desazkundearen nozioaren eraldaketa horren ondorioz, ulertu egin dezakegu zergatik duen hitz horrek hainbeste konnotazio, eta, batez ere, zein den haren inguruko eztabaidaren jatorria.

Orobat, eztabaida hori desazkundearen planteamendu teorikoak gauzatzeko aukerei buruzko ziurgabetasun etengabearen ondorio da, neurri batean. Jason Hickelen ustez, hau da horren arrazoia:

[zenbaiten aldetik] kezka dago desazkundeak nahasmena eragin dezakeelako, hain zuzen ere hazkundearen kontrakoa ez delako. «Hazkundera» aipatzen denean, normalean BPGd-ren hazkundeari egiten zaio erreferentzia, eta, beraz, pentsa daiteke desazkundera BPGd-ren murrizketaz ari dela. Desazkundearen aldekoak hau etengabe argitzera kondenatuta daude: desazkundera ez da BPGd-a murriztea, ekoizpen materiala eta energetikoa murriztea baizik... Arazoa hazkunde hitzak sorrarazten du, ez desazkunde hitzak. Egia

⁶ Beraz, «garapen jasangarria» oximoron bat da, «jasangarritasun» kontzeptua ortodoxia ekonomiko berrian sartuz eta iparralde globalak zuzendutako garapen-agenda — iparraldearen interesak hegoaldearen interesen gainetik jartzen dituen — inposatuz justifikatzen dena.

esan, hazkundearen alde egiten duten pertsonak ez dute kopuru abstraktu bat (BPGd-a) handitzeko helburua; hain zuzen, gehiago kontsumitu edo fabrikatu nahi dute, eta, horretarako, material eta energia gehiago erabili behar dira, noski. Hortaz, ekonomialariek eta politikariek hazkundeaz hitz egiten dutenean, material eta energia gehiagoren erabileraz ari dira (eta, zehatz-mehatz, merkaturatutako material eta energia gehiagoren erabileraz), nahiz eta hori argi eta garbi esan ez. Hori ezkututzen duen fetitxe bat da BPGd-arekiko kezka; izan ere, hazkundera immateriala dela sinestarazi nahi digu, baina ez da immateriala. BPGd-aren hazkunderarekin batera kontsumo materiala handituko ez balitz, jendeak ez luke hori lortu nahi izango —zer zentzu du errenta handiagoa izateak, baldin eta ez badu ahalbidetzen gastu militarra handitzea, etxe handiagoak eta auto azkarragoak erostea edo jendeari ordaintzea zure ordezkariak egin ditzan?—. Ildo horretan, desazkundera —arreta materialen eta energiaren erabilera murriztean (eta merkantilizazio-ereduak murriztean) jartzen duena— hazkundearen aurkako egokia da, eta, hain zuzen ere, hazkundera bera zertan datzan argitzen du (Hickel, 2022:2).

Era berean, desazkundearen aldeko ikertzaile-komunitatean, literatura zatikatua da nagusi; hots, eztabaida eta ikerketa-galdera txiki ugari daude, batez ere iparralde globaleko ekonomietarako proposamen politikoetan

oinarritzen direnak, eta lehen aipatutako nahasmenean sakontzen du horrek. Kritika gisa, esan daiteke ikuspegi-multzo horrek ez duela ikuspegi interseksionalik, askotariko proposamen intelektual, sozial eta analitikoak barne hartzen dituenik, eta hegoalde globaletik datozen ahotsei lekua ematen dienik (Martínez-Alier, 2014; Martínez-Alier *et al.*, 2016; Parrique, 2019; Hanacek *et al.*, 2020).

Hori horrela izanik, badirudi desazkundearen aldeko proposamenei ematen zaien bultzada teoriko eta politikoak bi gaitan jartzen duela arreta; hona hemen: lehenik, Antropozenora egokitutako ekonomia ekologiko baterako bide politikoa ezartzen duen proiektua baliozkotzat hartzen ari da (Hickel, 2019), eta, bigarrenik, hazkunde ekonomikoaren egokitasunari buruzko eztabaidak —hain zuzen, jarduera ekonomikoaren azken helburutzat hartzea egokia den ala ez— eta helburu horren inguruko gizarte-antolaketa foro akademikoetatik harago hedatzen ari dira. Horrenbestez, eta gaur egungoa bezalako larrialdi klimatikoaren testuinguruan, ezinbestekoa da desazkundearen aldeko proposamenak kontuan hartzea eta curriculum akademikoan txertatzea, gaur egungo antolamendu ekonomiko, politiko, kultural, espazial eta ingurumenekoaren aukera, muga eta alternatibei buruzko eztabaidak sustatzeko.

4 Erreferentzia bibliografikoak

Fitzpatrick, N., Parrique, T. y Cosme, I. (2022): “Exploring degrowth policy proposals: A systematic mapping with thematic synthesis”, in *Journal of Cleaner Production*, 365, 132764.

<https://doi.org/10.1016/j.jclepro.2022.132764>

Garzón Espinosa, A. (2022): “Los límites del crecimiento: ecosocialismo o barbarie” [online], in *La U. Revista de cultura y pensamiento*, (2022ko apirilaren 18a).

<https://la-u.org/los-limites-del-crecimiento-ecosocialismo-o-barbarie/>

Hanaček, K.; Roya, B., Avila, S. y Kallis, G. (2020): “Ecological economics and degrowth: Proposing a future research agenda from the margins”, en *Ecological Economics*, 169, 106495.

<https://doi.org/10.1016/j.ecolecon.2019.106495>

Hickel, J. (2019): “Degrowth: a theory of radical abundance”, in *Real-world Economics Review*, núm. 87.

<http://www.paecon.net/PAEReview/issue87/Hickel87.pdf>.

Gaztelaniaz ere eskura daiteke, esteka honetan:

https://ecosfron.org/wp-content/uploads/2020/01/El_decrecimiento_la_teor%C3%ADa_de_la_abundancia_radical_ESF_2020_compressed-1.pdf

Hickel, J. (2020): “What does degrowth mean? A few points of clarification”, in *Globalizations*.

<https://doi.org/10.1080/14747731.2020.1812222>

- Izquierda Unida (2022): *Manifiesto Decrecer para vivir*.
<https://izquierdaunida.org/2022/04/08/decrecer-para-vivir/>
- Jackson, T. (2009): *Prosperity without growth: Economics for a finite planet*, Londres: Routledge.
- Kallis, G. (2018). *Degrowth*, Newcastle Upon Tyne: Agenda Publishing.
- Latouche, S. (2008): *La apuesta por el decrecimiento*, Madril. Icaria Editorial.
- Martínez-Alier, J. (2014): “The environmentalism of the poor”, in *Geoforum*, 54, 239–241. <https://doi.org/10.1016/j.geoforum.2013.04.019>
- Martínez-Alier, J.; Temper, L., Del Bene, D. y Scheidel, A. (2016): “Is there a global environmental justice movement?”, in *Journal of Peasant Studies*, 43, 731–755. <https://doi.org/10.1080/03066150.2016.1141198>
- Parrique, T. (2019): *The Political Economy of Degrowth*. Ekonomiako doktorego-tesia Clermont Auvergne Unibertsitatean (Frantzia) eta Stockholmeko Resilience Centre zentroan (Suedia).
- Trainer, Ted (2012): «De-growth. Do you Realize What It Means?», in *Futures* 44: 590-599.
- Weiss, M. y Cattaneo, C. (2017): “Degrowth – taking stock and reviewing an emerging academic paradigm”, in *Ecological Economics* 137: 220–230.
<https://doi.org/10.1016/j.ecolecon.2017.01.014>

5 Sekuentziazio didaktikoa

Jarduera honetarako aurreikusitako iraupena bi ikastorduko bost klasekoa da. Horietan guztietan, saio bakoitzeko ordu eta erdi talde txikietan lan egiteko erabiliko da. Irakasleek azken ordu-erdia erabil dezakete kapituluetan jorratutako funtsezko elementuak biltzeko edo euren iritziz garrantzitsuenak diren alderdiak denen artean eztabaidatzeko.

Lehenik eta behin, mintegiaren saio bakoitzaren hasieran, irakasleak hasierako jarraibideak azalduko ditu. Irakaslea bigarren mailan egongo da saio bakoitzaren amaierara arte. Orduan, kapitulu bakoitzeko eduki nagusiak sistematizatu, planteatutako galderei buruzko zalantzak argitu eta mintegiaren saioan lortutako ikasketa bilduko da.

Bigarrenik, ikasleek jarraian proposatzen den ariketa egin beharko dute. Ariketa behar bezala egiteko, ikasleek astebete izan beharko lukete mintegia hasi aurretik, mintegiari dagozkion kapituluak irakurri ahal izateko; gainera, beste aste bat izan beharko lukete mintegia egin ondoren, entregatu beharreko dokumentua lantzeko. Solasaldi dialogikoan, ikasleek bakarka egin beharreko lanak eta elkarlanean egin beharrekoak izango dute pisurik handiena jardueran.

Jarduera. Liburu honi buruzko literatura-solasaldi dialogikoa: HICKEL, Jason (2023 [2021]). Menos es más: Cómo el decrecimiento salvará al mundo. Madril: Capitán Swing. Liburu honetan ere oinarri daiteke jarduera: LATOUCHE, Serge (2008 [2006]). La apuesta por el decrecimiento. ¿Cómo salir del imaginario dominante?. Bartzelona: Icaria Editorial.

Deskribapena eta xedea

Solasaldi dialogikoetan, esanahiaren eta ezagutzaren eraikuntza kolektiboa egiten da, solasaldian parte hartzen duten pertsonetako elkarrizketan oinarrituta (CREA, 2013). Proposamen didaktiko horrek ikaskuntza dialogikoa du oinarri, eta parte hartzen duten pertsona guztien arteko elkarrizketa horizontal eta berdintasunezkoan oinarritzen da; elkarrizketa horretan, parte-hartzaileen ezagutzak eta ekarpenak aitortzen eta baloratzen dira (CREA, 2013). Metodo horri esker, parte hartzen duten pertsona guztien artean eraiki daiteke ezagutza, bai eta egungo gai, eztabaida eta arazoekin konektatu eta, aldi berean, hausnarketa kritikoen garapena bultzatu ere (CREA, 2013). Hortaz, ikasleek ikaskuntza esanguratsua⁷ lor dezaten laguntzen du.

Solasaldiaren saio bakoitzera joan aurretik, adostutako kapitulua edo kapituluak irakurrita izan behar dituzte ikasleek. Solasaldiaren saioan bertan, testuaren edukari buruz eta hura irakurtzean sortzen diren beste gai batzuei buruz hitz egiten da, eta ikasleentzat interesgarriak —edo adierazgarri eta esanguratsuenak— izan diren pasarteen berri ematen da.

⁷ Ikaskuntza esanguratsuari dagokionez, ikasleek eskuratutako ezagutza berriak zeharka eranstean zaizkie aurretik lortutako beste ezagutza batzuei, bai eta ikasleen bizitza pertsonalaren eta profesionalaren alderdi praktikoei ere.

Gainera, solasaldi dialogikoetan, talde bakoitzeko pertsona batek hartu behar du bere gain solasaldiko moderatzaile-lana. Pertsona horrek lagundu behar die taldekide guztiei berdintasunez parte hartzen eta euren argudioak ematen, eta hitz egiteko txanda eta landutako gaiei buruz emandako iritziak errespetatzen. Bestalde, gutxien parte hartzen duten pertsonen esku-hartzea lehenesten ahaleginduko da, parte-hartzea ahalik eta handiena izan dadin.

Solasaldiaren hasieran, zenbait galdera egin daitezke, ikasleek erantzun diezaieten. Kasu horretan, solasaldiari hasiera emateko, moderatzaileak parte-hartzaile bati hitz egiteko txanda emango dio, kapituluari buruz egin dituen gogoetak azal ditzan; orduan, beste parte-hartzaileei emango die hitza ondoz ondo. Ondoren, modu ordenatuan, denen artean helduko diete proposatutako galderei, eta parte-hartzaile bakoitzak bere iritzia emango die besteei. Prozedura horren helburua ez da irakurritako testu bakoitzetik ondorio edo iritzi bakarretara iristea, elkarriketarako eta baterako hausnarketarako gune bat sortzea baizik, «elkarriketa intersubjektibo» baten bidez (CREA, 2013). Elkarrekin garrantzi handiko gaietan sakontzen eta ikaskuntza esanguratsua errazten laguntzen duen tresna bat da elkarriketa-mota hori.

Prestakuntza

Jardueraren lehen saioa egin aurreko astean, irakasleak 4 eta 6 pertsona bitarteko taldeak osatu behar dituztela jakinaraziko die ikasleei. Komeni da taldeak txikiak izatea. Klasean ikasle gutxi badago, bikoteka egin daiteke jarduera. Taldeak bost saioetan mantenduko dira aldatu gabe.

Mintegiaren saio bakoitza baino astebete lehenago, irakasleak saio bakoitzari buruzko jarraibideak aurkeztuko ditu. Kapitulu bakoitzeko edukietara egokituko dira jarraibideak, eta, gutxienez, atal hauek izan beharko dituzte:

- i) Saioaren helburuak.
- ii) Lan-dinamika:
 - a) Galdera bideratzaileak.
 - b) Solasaldi dialogikoaren lan-eskemaren deskribapena.
 - c) Mintegiaren funtsezko datak (jarraibideak – saioa – jardura entregatzea).

Hauxe da prozedura horren oinarria: komeni da ikasleek gutxienez astebete izatea bakarkako lana egiteko, mintegiaren saio bakoitzean landu beharreko kapitulua edo kapituluak irakurtzeko; izan ere, ikasgelan egin beharreko lan bakarra solasaldi dialogikoaren jardura praktikan jartzea izan beharko litzateke. Gainera, mintegiaren saio bakoitzaren ostean, beste aste bat izan beharko lukete, entregatu beharreko dokumentua bakoitza bere aldetik lantzeko.

Gomendagarria da jarraibideak PDF edo Word formatuko dokumentuen bidez aurkeztea. Jarraibideak ikasleen eskura jarri behar dira une oro, campus birtualaren edo antzeko plataformen bidez, behar dutenean kontsulta ditzaten. Jarraibide hauek adibide gisa erabil daitezke⁸:

⁸ Jarraibideak egiteko, Hickelen liburua (2023 [2021]) erabili da oinarri gisa.

Jarraibideak – Lehen mintegia (A aukera)

Helburuak

- Garapenak proposamen ekonomiko eta politiko gisa dituen muga eta kontraesanei buruzko ezagutzak eskuratzea.
- Hazkunde, garapen eta jasangarritasun kontzeptuei buruzko eztabaidekin ohitzea, eta kontzeptu horietako bakoitzean nagusi diren nozioen formulazioari buruz hausnartzea.
- Eztabaida horiei buruz kritikoki hausnartzea.
- Herrialde periferikoek egungo larrialdi klimatikoaren testuinguruan garatzeko jarrai ditzaketen estrategiei buruz pentsatzen saiatzea.
- Interneten garrantzizko informazio kualitatiboa bilatzea eta informazio horren ahozko aurkezpena lantzea.

Lan-dinamika

Ikasgelako saioa hasi aurretik, hau egin beharko duzu:

- a) Lehenik, sarrerako kapitulua arretaz irakurri.
- b) Egileak kapitulu bakoitzean aurkezten dituen ideia nagusiak identifikatu.
- c) Ikasgelan jorratu ditugun kontzeptuak edo nozioak identifikatu.
- d) Zuretzat ezezagunak diren kontzeptuak edo nozioak identifikatu.
- e) Mintegiaren helburuei buruz hausnartu (ikusi aurreko atala).

f) Galdera hauek arretaz irakurri eta haiei erantzun:

1. Zer da desazkundera?
2. Zergatik sortu da desazkundera?
3. Zergatik da beharrezkoa desazkundera?
4. Zer arazo identifikatzen ditu egileak egungo sistemaren funtzionamenduan?

Aurrez aurreko saioan, solasaldi dialogikoaren eskema bati jarraituz banaka eta taldeka lan egiteko eskatuko dizuet.

a) Zer da? Ezagutzaren eraikuntza kolektiboa da, ikasleen arteko elkarriketan oinarritua. Elkarriketa horren bidez, trukeak sortzen dira. Truke horiek aberasgarriak dira, eta irakurgaiaren eta gaiaren sakontzea ahalbidetzen dute, bai eta, aldi berean, ezagutza berriak eratzea ere. Gainera, pertsona guztien berdintasuneko parte-hartzea bultzatzen dute.


b) Nola antolatzen da? Saioan, irakurritako testuaren interpretazioa azalduko du parte-hartzaile bakoitzak. Beharrezkoa da kapituluak aldez aurretik irakurtzea, oharak hartzea eta beheago adierazitako galderei erantzutea. Moderatzaile bat izendatu behar da, eta txanda ekitatiboak egin, taldeko pertsona guztiek protagonismo bera izan dezaten.

c) Zer egiten da? (etxean / ikasgelan)

- Etxean, hautatutako kapituluak irakurri behar dira, eta aurreko galderei erantzun.
- Ikasgelan, hitz egiteko txanda bat egingo da hasieran, eta, horretan, pertsona bakoitzak irakurgaiaren eta proposatutako galderen inguruan egin dituen hausnarketa kritikoak azalduko ditu.
- Ikasgelan, solasaldiaren erregistro bat egingo da.
- Ikasgelan, zure iritziak eta erantzunak emango dizkiezu gainerako taldeei.

d) Zer ematen da? (klasearen ondoren) → banakako lana *campus birtualean*

- Dokumentu batean, proposatutako galderen erantzunak garatzea.
- Iruzkin kritiko bat idaztea, taldeko eztabaidaren gidoiari jarraituz. Iruzkin horretan, kapitulua irakurtzean sortutako banakako hausnarketak ere azalduko dira.
- PDF formatuan aurkeztea, izen-abizenen eta taldearen zenbakiaren bidez identifikatuta.
- Entregatzeko azken eguna: mintegiaren ondorengo asteko azken klasea baino lehen.



Jarraibi deak – Lehen mintegia (B aukera)

Helburuak

- Garapenak proposamen ekonomiko eta politiko gisa dituen muga eta kontraesanei buruzko ezagutzak eskuratzea.
- Hazkunde, garapen eta jasangarritasun kontzeptuei buruzko eztabaidekin ohitzea, eta kontzeptu horietako bakoitzean nagusi diren nozioen formulazioari buruz hausnartzea.
- Eztabaida horiei buruz kritikoki hausnartzea.
- Herrialde periferikoek egungo larrialdi klimatikoaren testuinguruan garatzeko jarrai ditzaketen estrategiei buruz pentsatzen saiatzea
- Interneten garrantzizko informazio kualitatiboa bilatzea eta informazio horren ahozko aurkezpena lantzea.

Lan-dinamika

Ikasgelako saioa hasi aurretik, hau egin beharko duzu:

- a) Lehenik, sarrerako kapitulua arretaz irakurri.
- b) Egileak kapitulu bakoitzean aurkezten dituen ideia nagusiak identifikatu.
- c) Ikasgelan jorratu ditugun kontzeptuak edo nozioak identifikatu.
- d) Zuretzat ezezagunak diren kontzeptuak edo nozioak identifikatu.
- e) Mintegiaren helburuei buruz hausnartu (ikusi aurreko atala).

f) Galdera hauek arretaz irakurri eta haiei erantzun:

- Irakurri egilearen esaldi hau eta adierazi ados zauden ala ez: «Mundua banakako elementuen multzo gisa ikustera ohituta gaude, eta ez multzo konplexu gisa. Izan ere, horrela irakatsi digute geure buruarengan ere pentsatzen, gizabanako gisa».
- Nola definitzen ditu Migrazioetarako Nazioarteko Erakundeak (MNEak) egileak aipatzen dituen migrazio klimatikoak? Bilatu klima-aldaketaen efektuek gaur egun eragindako nahitaezko biztanleria-lekualdaketen adibideak.
- Nola azaltzen du egileak ekosistemen konplexutasuna? Zertaz ari da «inflexio-puntuak» eta «atzeraelikadurako begiztak» aipatzen dituenean? Zure ustez, aplikatu ahal zaizkio nozio horiek sistema ekonomikoari?
- Egilearen arabera, zein da sistema kapitalistaren funtsezko ezaugarria?

Aurrez aurreko saioan, solasaldi dialogikoaren eskema bati jarraituz banaka eta taldeka lan egiteko eskatuko dizuet.

a) Zer da? Ezagutzaren eraikuntza kolektiboa da, ikasleen arteko elkarriketan oinarritua. Elkarriketa horren bidez, trukeak sortzen dira. Truke horiek aberasgarriak dira, eta irakurgaian eta gaian sakontzea ahalbidetzen dute, bai eta, aldi berean, ezagutza berriak eratzea ere. Gainera, pertsona guztien berdintasunezko parte-hartzea bultzatzen dute.


b) Nola antolatzen da? EnSaioan, irakurritako testuaren interpretazioa azalduko du parte-hartzaile bakoitzak. Beharrezkoa da kapitulua aldez aurretik irakurtzea, oharrak hartzea eta beherago adierazitako galderei erantzutea. Moderatzaile bat izendatu behar da, eta txanda ekitatiboak egin, taldeko pertsona guztiek protagonismo bera izan dezaten.

c) Zer egiten da? (etxean / ikasgelan)

- Etxean, hautatutako kapituluak irakurri behar dira, eta aurreko galderei erantzun.
- Ikasgelan, hitz egiteko txanda bat egingo da hasieran, eta, horretan, pertsona bakoitzak irakurgaiaren eta proposatutako galderen inguruan egin dituen hausnarketa kritikoak azalduko ditu.
- Ikasgelan, solasaldiaren erregistro bat egingo da.
- Ikasgelan, zure iritzia eta erantzunak emango dizkiezu gainerako taldeei.

d) Zer ematen da? (klasearen ondoren)→ banakako lana *campus birtualean*

- Dokumentu batean, proposatutako galderen erantzunak garatzea.
- Iruzkin kritiko bat idaztea, taldeko eztabaidaren gidoiari jarraituz. Iruzkin horretan, kapitulua irakurtzean sortutako banakako hausnarketak ere azalduko dira.
- PDF formatuan aurkeztea, izen-abizenen eta taldearen zenbakiaren bidez identifikatuta.
- Entregatzeko azken eguna: mintegiaren ondorengo asteko azken klasea baino lehen.



Jarraib ideak – Bigarren mintegia

Helburuak

- Hazkunde ekonomikoa helburu desiragarri gisa normalizatzen eta legitimatzen duten narratibei eta diskurtsoei buruz hausnartzea.
- Hazkunde eta garapen kontzeptuei buruzko eztabaidekin ohitzea, eta kontzeptu horietako bakoitzean nagusi diren nozioen formulazioari buruz hausnartzea.
- Eztabaida horiei buruz kritikoki hausnartzea.
- Hazkunde ekonomikorik egongo ez balitz bizi-baldintza duinak bermatzeko jarrai daitezkeen estrategiei buruz pentsatzen saiatzea.
- Interneten garrantzizko informazio kualitatiboa bilatzea eta informazio horren ahozko aurkezpena lantzea.

Lan-dinamika

Ikasgelako saioa hasi aurretik, hau egin beharko duzu:

- a) Lehenik, 1., 2. eta 3. kapituluak arretaz irakurri.
- b) Egileak kapitulu bakoitzean aurkezten dituen ideia nagusiak identifikatu.
- c) Ikasgelan jorratu ditugun kontzeptuak edo nozioak identifikatu.
- d) Zuretzat ezezagunak diren kontzeptuak edo nozioak identifikatu.
- e) Mintegiaren helburuei buruz hausnartu (ikusi aurreko atala).

f) Galdera hauek arretaz irakurri eta haiei erantzun:

1. Nola lagundu zion kolonialismoak hazkunde ekonomikoari Europako herrialdeetan?
2. Zer esan nahi du autoreak «kapitalismoaren burdinazko legea» esamoldearekin?
3. Zein dira egileak BPGd-ean aurkitu dituen ahulezia nagusiak, biztanlerien ongizatearen neurri gisa?
4. Nola laguntzen du teknologiak hazkunde ekonomikoa legitimatzen duen diskurtsoa betikitzen?

Aurrez aurreko saioan, solasaldi dialogikoaren eskema bati jarraituz banaka eta taldeka lan egiteko eskatuko dizuet.

a) Zer da? Ezagutzaren eraikuntza kolektiboa da, ikasleen arteko elkarriketan oinarritua. Elkarriketa horren bidez, trukeak sortzen dira. Truke horiek aberasgarriak dira, eta irakurgaian eta gaian sakontzea ahalbidetzen dute, bai eta, aldi berean, ezagutza berriak eratzea ere. Gainera, pertsona guztien berdintasunezko parte-hartzea bultzatzen dute.


b) Nola antolatzen da? Saioan, irakurritako testuaren interpretazioa azalduko du parte-hartzaile bakoitzak. Beharrezkoa da kapituluak aldez aurretik irakurtzea, oharrak hartzea eta beherago adierazitako galderei erantzutea. Moderatzaile batizendatu behar da, eta txanda ekitatiboak egin, taldeko pertsona guztiek protagonismo bera izan dezaten.

c) Zer egiten da? (etxean / ikasgelan)

- Etxean, hautatutako kapituluak irakurri behar dira, eta aurreko galderei erantzun.
- Ikasgelan, hitz egiteko txanda bat egingo da hasieran, eta, horretan, pertsona bakoitzak irakurgaiaren eta proposatutako galderen inguruan egin dituen hausnarketa kritikoak azalduko ditu.
- Ikasgelan, solasaldiaren erregistro bat egingo da.
- Ikasgelan, zure iritziak eta erantzunak emango dizkiezu gainerako taldeei.

d) Zer ematen da? (klasearen ondoren) → tarea individual campus birtualean.

- Dokumentu batean, proposatutako galderen erantzunak garatzea.
- Iruzkin kritiko bat idaztea, taldeko eztabaidaren gidoiari jarraituz. Iruzkin horretan, kapitulua irakurtzean sortutako banakako hausnarketak ere azalduko dira.
- PDF formatuan aurkeztea, izen-abizenen eta taldearen zenbakiaren bidez identifikatuta.
- Entregatzeko azken eguna: mintegiaren ondorengo asteko azken klasea baino lehen.



Jarraib ideak – Hirugarren mintegia

Helburuak

- Desazkundearen eta postdesarrollismoaren aldeko alternatiben inguruan gizartea antolatzeke proposamenen aukerei eta mugei buruz hausnartzea.
- Desazkunde eta postgarapen kontzeptuei buruzko eztabaidekin ohitzea, eta kontzeptu horietako bakoitzean nagusi diren nozioen formulazioari buruz hausnartzea.
- Eztabaida horiei buruz kritikoki hausnartzea.
- Hazkunde ekonomikorik egongo ez balitz bizi-baldintza duinak bermatzeko jarrai daitezkeen estrategiei buruz pentsatzen saiatzea.
- Interneten garrantzizko informazio kualitatiboa bilatzea eta informazio horren ahozko aurkezpena lantzea.

Lan-dinamika

Ikasgelako saioa hasi aurretik, hau egin beharko duzu:

- a) Lehenik, 4. eta 5. kapituluak arretaz irakurri.
- b) Egileak kapitulu bakoitzean aurkezten dituen ideia nagusiak identifikatu.
- c) Ikasgelan jorratu ditugun kontzeptuak edo nozioak identifikatu.
- d) Zuretzat ezezagunak diren kontzeptuak edo nozioak identifikatu.
- e) Mintegiaren helburuei buruz hausnartu (ikusi aurreko atala).

f) Galdera hau arretaz irakurri eta hari erantzun:

Egileak azpimarratu du gure bizimodua aldatu egin behar dugula, baina, larrialdi klimatikoari aurre egiteko, banakako ekintzak ez direla nahiko. Bestalde, YouGov erakundeak berriki egindako eta The Guardian egunkariak argitaratutako [inkesta](#) baten arabera, «europar askok nahi dute klima-aldaketaren aurkako neurriak hartzea, baina ez dute nahi neurri horiek euren bizimoduan eraginik izatea». Beraz, gure bizimoduan aldaketak behar baditugu, baina bakoitza bere aldetik ez badugu gure bizimodua aldatzeko konpromisorik hartzen... zer irtenbide (demokratiko) bururatzen zaizkizu gure bizimodua etortzear dagoenera egokitzeko (gaiaren premia dela eta)?

Aurrez aurreko saioan, solasaldi dialogikoaren eskema bati jarraituz banaka eta taldeka lan egiteko eskatuko dizuet.

a) Zer da? Ezagutzaren eraikuntza kolektiboa da, ikasleen arteko elkarriketan oinarritua. Elkarriketa horren bidez, trukeak sortzen dira. Truke horiek aberasgarriak dira, eta irakurgaian eta gaian sakontzea ahalbidetzen dute, bai eta, aldi berean, ezagutza berriak eratzea ere. Gainera, pertsona guztien berdintasunezko parte-hartzea bultzatzen dute.


b) Nola antolatzen da? Saioan, irakurritako testuaren interpretazioa azalduko du parte-hartzaile bakoitzak. Beharrezkoa da kapituluak aldez aurretik irakurtzea, oharrak hartzea eta beherago adierazitako galderei erantzutea. Moderatzaile bat izendatu behar da, eta txanda ekitatiboak egin, taldeko pertsona guztiek protagonismo bera izan dezaten.

c) Zer egiten da? (etxean / ikasgelan)

- Etxean, hautatutako kapituluak irakurri behar dira, eta aurreko galderei erantzun.
- Ikasgelan, hitz egiteko txanda bat egingo da hasieran, eta, horretan, pertsona bakoitzak irakurgaiaren eta proposatutako galderen inguruan egin dituen hausnarketa kritikoak azalduko ditu.
- Ikasgelan, solasaldiaren erregistro bat egingo da.
- Ikasgelan, zure iritziak eta erantzunak emango dizkiezu gainerako taldeei.

d) Zer ematen da? (klasearen ondoren) → banakako lana campus birtualean.

- Dokumentu batean, proposatutako galderen erantzunak garatzea.
- Iruzkin kritiko bat idaztea, taldeko eztabaidaren gidoiari jarraituz. Iruzkin horretan, kapitulua irakurtzean sortutako banakako hausnarketak ere azalduko dira.
- PDF formatuan aurkeztea, izen-abizenen eta taldearen zenbakiaren bidez identifikatuta.
- Entregatzeko azken eguna: mintegiaren ondorengo asteko azken klasea baino lehen.




Oharrak

Jardueran, aurkeztutako edukiak laburbiltzeaz eta saio bakoitzeko azken minutuetan funtsezko elementuak biltzeaz arduratuko da irakaslea.

Erreferentziak

Desberdintasunak Gainditzen dituzten Teoria eta Praktiken Ierketa Zentroa
- CREA (2013): *Formación en Comunidades de Aprendizaje. Módulo 7. Tertulias dialógicas*. Bartzelona: Bartzelonako Unibertsitatea.



6 Emaizten ebaluazioa eta balorazioa

Jarduera honetan, elkarren osagarriak diren bi ebaluazio-modalitate erabil daitezke aldi berean:

- a) Ebaluazio formatiboa, prozesuala edo jarraipenekoa. Prozesuan zehar egiten da, eta aukera ematen du jardueraren testuinguruan izandako bilakaera ezagutzeko, taldeek ikasgelan egiten duten lanaren jarraipena eginez. Halaber, prozesua berrikusteko eta, beharrezkoa izanez gero, birbideratzeko aukera ematen du, jardueran lan egin ahala ikasleengan identifikatzen diren premiei edo gabeziei buruzko informazioa ematen baitu.
- b) Ebaluazio sumatiboa edo azken ebaluazioa. Jardueraren helburuen lortze-mailari eta jarduerarekin lortu nahi izan denari buruzko informazioa ematen digu. Jardueraren emaitzak neurtzen ditu, eskuratutako ezagutzei eta bereganatutako edukiei dagokienez, eta jardueraren egokitasuna baloratzeko balio du. Ebaluazio formatiboarekin batera, jarduera berriro formulatzeko eta hurrengo edizioetan ikasturtearen beharretara egokitzeko erabil daiteke.


Irakasleek egin behar dituzte bai ebaluazio formatiboa bai ebaluazio sumatiboa. Ikasleen gaitasunak eta trebetasunak ebaluatzeko orduan, taldean lan egiteko eta laburbiltzeko gaitasunak hartu behar dira kontuan, bai eta diziplinartekotasunez lan egiteko eskuratutako trebetasunak ere.

Hona hemen [errubrika](#) bat, ikasleek lortutako ezagutzak ebaluatzeko irakasleek eredu gisa erabil dezaketena:

IRAKASLEEK IKASLEEN EZAGUTZAREN JABEKUNTZA EBALUATZEKO EREDU GISA ERABIL DEZAKETEN ERRUBRIKA

	Bete gabe	Txarra	Ona	Oso ona	Bikaina
Gairako garrantzitsuak diren kontzeptuak eta nozioak egoki erabiltzea	Ez ditu ikerketa-arlorako edo aztergairako garrantzitsuak diren kontzeptuak edo nozioak erabiltzen.	Egoki erabiltzen ditu ikerketa-arlorako edo aztergairako garrantzitsuak diren kontzeptuak eta nozioak, baina modu jeneralistan zerrendatu besterik ez du egiten, analisisasuarekin duten lotura zehaztu gabe.	Behar bezala erabiltzen ditu ikerketa-arlorako edo aztergairako garrantzitsuak diren kontzeptuak eta nozioak, eta analisi-kasura egokitzen ditu	Behar bezala erabiltzen ditu ikerketa-arlorako edo aztergairako garrantzitsuak diren kontzeptuak eta nozioak, analisi-kasura egokitzen ditu eta informazio gehigarriarekin osatzen ditu.	Behar bezala erabiltzen ditu ikerketa-arlorako edo aztergairako garrantzitsuak diren kontzeptuak eta nozioak, analisi-kasura egokitzen ditu, informazio gehigarriarekin osatzen ditu eta analisisa bere esperientziara eramaten du; hau da, ikaskuntza-prozesua adierazgarria izatea lortzen du.
Aurkezpen argia eta egokia	Lanaren aurkezpena desegokia da, eta ez du ordenarik, edo ez dago modu argi eta koherentean idatzita. Ez dago idazkirik; binetak bakarrik erabili dira.	Lanaren aurkezpena desegokia da, eta ez du ordenarik, edo ez dago modu argi eta koherentean idatzita. Idatzizko lana laburra da.	Lanaren aurkezpena egokia da, baina ez dago modu argi eta koherentean idatzita. Idatzizko lana laburregia edo gehiegizkoa da.	Lanaren aurkezpena egokia da, eta modu argi eta koherentean idatzita dago. Idatzizko lana egokia da.	Lanaren aurkezpena egokia eta ordenatua da, eta modu argi eta koherentean idatzita dago. Idatzizko lana aproposa da.
Egitura	Ez du egiturarik.	Egitura ahula: ideiak nekez ulertzen dira.	Oinarrizko egitura: ideiak nabarmendu dira.	Egitura ona: ideiak eta testuaren gorputza, horiekin lotuta.	Ideien egitura argia eta ordena egokia: erraz irakurri eta uler daiteke.
Talde-lana	Ez du parte hartzen/ez da sartzen eztabaida aktiboetan beste ikasle batzuekin. Oso ekarpen txikia egiten du eta nekez ulertzen ditu gaiaren funtsezko printzipioak.	Oso konpromiso txikia du, edo bat ere ez, beste ikasleekiko eztabaidan. Oso ekarpen txikia egiten du eta nekez ulertzen ditu gaiaren funtsezko printzipioak.	Konpromiso txikia du baina funtsezko kontzeptuak ezagutzen eta ulertzen dituela erakusten du.	Asko laguntzen du gaian, eta harreman ona izan du ikaskideekin.	Asko lagundu du kontzeptu guztietan, eta aktiboki eta sakon jardun du ikaskideekin lankidetzan.

Orobat, autoebaluazio-ariketa bat egitea iradoki dakieke ikasleei, euren ikaskuntza-prozesuan izandako bilakaera balioesteko, eskuratutako ezagutzetan oinarrituta. Are gehiago, ikasleek beste taldeen ebaluazio kolektiboan lagun dezakete, aurkezpenek elkarren artean eta jarduera osoarekiko duten koherentziari erreparatuz.



UNITATE
DIDAKTIKOA

3

2030 Agenda: hurbilketa kritikoa

1 Unitate didaktikoaren sarrera

Ingurumenari eta garapenari buruzko nazioarteko adierazpenen bilakaera ulertzeko —adierazpen horiek 2030 Agendaren aitzindari dira—, beharrezkoa da anbientalismoa nola sortu zen eta agenda politiko globalean nola sartu zen gogora ekartzea, laburki. Ariketa honen bidez, aukera izango dugu garapen kontzeptuaren ikuskera nagusia testuinguruan kokatzeko, une historikoaren arabera, eta ingurumenaren nozioarekin duen lotura zehazteko.

Irakaskuntza-unitate honetan, bilakaera hori azalduko da, eta «ingurumenari eta garapenari buruzko konferentzia» moduko bat egin beharko dute ikasleek. Horretarako, «aditu-taldeak» eratuko dituzte, premisa hau aintzat hartuta: talde bakoitzeko kide guztiek dituzte egin beharreko ekarpen garrantzitsuak.

Talde bakoitzak gai izan beharko du garapenaren eta ingurumenaren inguruan landu duen nazioarteko adierazpenaren funtsa ikaskideei aurkezteko. Horretarako, poster zientifiko bat erabiliko da euskarri gisa, bateratze-lana egiteko, eta, horri esker, garapenaren eta jasangarritasunaren arteko loturarekin batera doan corpus generikoa identifikatu ahal izateko. Hau da proposamen didaktiko horren oinarritzko premisa: interdependentziaren hezkuntza-esperientziak — talde-lanaren bidez eta ezagutza kolektiboa sortuz garatua— ikasteko ahalmen oso handia du ikasleentzat.

2 Fitxa teknikoa

Baliabidea erabiltzeko gomendatutako irakasgai espezifikoak

Baliabide hau egokia da garapenaren ekonomia, garapenerako politikak, ekonomia politikoa, munduko ekonomia, nazioarteko harremanak eta arloko azterlanak aztergai dituzten irakasgaietarako edo ingurumenaren giza alderdiekin eta alderdi sozioekonomikoekin, 2030 Agendarekin eta garapen jasangarrirako helburuekin lotutako irakasgaietarako. Hona hemen:

- Garapenaren ekonomia
- Garapenerako politikak
- Nazioarteko lankidetza eta garapena
- Lankidetzarako eta garapen sozialerako hezkuntza
- Garapen komunitarioa
- Ekonomia politikoa
- Espainiako eta munduko ekonomia
- Nazioarteko harremanak eta arloko azterlanak
- Geografia politikoa
- Ingurumenaren nazioarteko araubidea
- Ekologia eta kultura-prozesuak

Hartzaileak

- Lehen aipatutako irakasgaietako unibertsitateko irakasle eta ikasleak, bai eta garapenaren arau-esparruaren bilakaerari eta ingurumen-jasangarritasunarekin duen loturari buruzko erreferentziak barne hartzen dituzten beste irakasgai batzuetakoak ere, 2030 Agenda edo garapen jasangarrirako helburuak (GJHak) berariaz jorratu ez arren.

Helburu orokorrak

- Ingurumenaren eta garapenaren artean zer lotura dagoen ikastea.
- Anbientalismoaren bilakaera aztertzea, Nazio Batuen adierazpenen bidez.
- Adierazpen bakoitzaren printzipioak aplikatzearen ondorioen irismena kontuan hartzea.

Helburu espezifikoak


- Nazio Batuen adierazpen bakoitzaren sorrera testuinguruan kokatzea eta haren elementu eratzaileak identifikatzea.
- Adierazpenak sortzeko bide ematen duten arau-esparruak identifikatzea.
- Ingurumenari eta garapenari buruzko nazioarteko adierazpen bakoitzaren mugak detektatzea.

Modalitateak eta metodologiak

- Estrategia metodologiko espositiboa:
 - Metodoak: azalpenezkoa.
 - Teknika: posterrak aurkeztea.
 - Helburuak: ezagutza eta jarrerak.
- Estrategia metodologiko aktiboa:
 - Metodoa: talde-lana, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza.
 - Teknika: posterrak aurkeztea.
 - Helburuak: trebetasunak eta jarrerak.

Baliabide didaktikoak, materialak (instalazioak) eta teknologikoak

Baliabide didaktiko gisa, hemen jasotzen den proposamena erabil daiteke, bai eta dokumentu honen 3.1 atalean orientazio gisa agertzen diren erreferentzia bibliografikoak ere. Halaber, nahi adina erreferentzia erabiltzeko gonbit egiten zaie irakasleei, jarduera irakasgaiaren beharretara egokitzeko.



Denboralizazioa

Atal honetan deskribatzen den jarduera klase-saio oso batean (bi orduan) egiteko pentsatuta dago. Saio horretan, taldeek elkarlanaren emaitzak aurkeztuko dizkiete gainerako ikasleei. Horrez gain, ikasleek banakako lana egin beharko dute ikasgelatik kanpo, jarduera burutzeko.

Horrenbestez, garapenari buruzko korrante teoriko nagusiak azaltzeko saio teoriko gutxiago emateko erabil dezake irakasleak jarduera, eta, horri esker, ikasgelako elkarlaneko saioak optimizatzeko.

Jarduera egiteko lekua

Jarduera egiteko leku nagusia ikasgela da, edo, bestela, irakatsi eta ikasteko prozesua gauzatzen den beste esparru fisiko oro.



3 Gaiaren inguruko hurbilketa teorikoa

Anbientalismoaren sorrera eta jasangarritasunaren paradigma: baliabide mugatuak eta hazkundearen mugak

Garapen ekonomikoko prozesuen oinarrian dauden metaketa kapitalistako prozesu guztiek euskarri fisiko bat behar dute mantentzeko eta denboran irauteko, eta euskarri hori sistema biogeofisikoaren araberakoa da eta haren mende dago. Hortaz, sistema ekonomikoak, sistema sozialak diren aldetik, sistema natural orokor baten barruan daude, eta horrek haien garapen-aukerak mugatzen ditu. Duela mende batzuk, lehen ekonomialari ekologikoek eman zuten gai horien berri, eta badirudi gaur egun onarpen-maila handiagoa dutela. Oraindik ez da nahikoa, ordea.

Maila politikoan, ordea, inflexio-puntua askoz beranduago iritsi zen, gure egungo garaietatik hurbileko une batean. Hain zuzen, 1972an, Donella Meadows-ek koordinatutako «Hazkundearen mugak» txostena argitaratu zen, garapen-eredu nagusiaren baliozkotasuna zalantzan jarri zuena. Eredu horrek logika mugagabetzat hartzen zuen hazkunde ekonomikoa, neurri batean hipotesi marjinalista jakin batzuen arabera sistema hori gai zelako produkzioa maximizatzeko eta, aldi berean, produkzio horren «ingurumen-kostuak» barneratzeko. 1972ko txosten hori izan zen diskurtso nagusiarekin bat ez zetozen lehen lanetako bat, eta, argitaratu zenean, garrantzi handia izan zuen.

Handik urte batzuetara, 1987an, Brundtland txostena argitaratu zenean, modu eraginkorrean hasi zen «garapen ekonomikoaren desorekak» zuzenduko zituzten arauen bidea zehazten, garapen-eredua planetaren

ingurumen-gaitasunekin uztartzen saiatze aldera; orduan sortu zen «garapen jasangarria» esamoldea, orduz geroztik garapenaren agenda politiko globala antolatu duena.

Brundtland txostena (1987) eta garapen jasangarrirako arau-esparrua⁹

Brundtland txostena (BT), 1987an argitaratua, izan zen ELGAkoak ez ziren herrialdeen —ekonomia periferikoak aipatzeko erabilitako eufemismoa— garapena zalantzan jarri zuen lehen dokumentu ofiziala; hain zuzen, txostenaren arabera, herrialde horiek ezin izango zioten ELGAko ekonomiek ordura arte erabilitako ereduari jarraitu, baliabide naturalen eskasia zela eta; izan ere, orduan hasten zen agerian jartzen baliabideak mugatuak direla. Muga horiek, txostenean adierazten zenez, «goranzko kostu eta beheranzko etekin gisa» azalduko dira, «eta ez baliabide-oinarri baten bat-bateko galera gisa».

BTa garapen jasangarriaren kontzeptuaren definizioagatik da ezaguna: «Garapen jasangarria da egungo belaunaldiaren beharrak asetzen dituen, etorkizuneko belaunaldiek euren beharrak asetzeko izango duten ahalmena arriskuan jarri gabe». Hala ere, kontzeptuaren ikuspegitik, esan daiteke «garapen jasangarria», berez, oximoron bat dela; izan ere, ikuskera nagusiaren arabera garapenak hazkunde ekonomiko mugagabea ekartzen duenez, «garapen jasangarria» ezinezkoa da. Arazo bat sortzen da definizio hori orokortzearen ondorioz; batetik, egingarritzat hartzen du jasangarritasuna, eta, beraz, legitimatu egiten du kontzeptu hori sistema kapitalistaren barruan erabiltzea, eta, bestetik, justifikatu egiten du hazkunde ekonomikoa etengabe bilatzea garapenaren azken helburua izatea.

⁹ Atal hau Bermejoren (2014) eta Scoonesen (2016) testuak oinarri hartuta egin da.

Drexhage eta Murphy egileen arabera (2010, in Bermejo, 2014), garapen jasangarriaren kontzeptua «malgua» da, eta, hortaz, horrexegatik manipula dezakete nazioarteko finantza-erakundeek, «kontzeptua euren interesetara egokitzeko» aukera ematen baitie. Egokitzapen horren adibide gisa, Munduko Bankuaren eta Nazioarteko Diru Funtsaren bertsioak aipatzen dituzte, besteak beste: Munduko Bankuak dioenez, «konpromisoa du globalizazio jasangarriarekin», eta «ingurumena zaindus lortu nahi du hazkundera», eta Nazioarteko Diru Funtsak, berriz, «hazkunde ekonomiko jasangarriarekin» duen konpromisoa berresten du. Bestalde, Munduko Merkataritza Antolakundeak «muga irekiak lortuz eta merkataritzari jarritako oztopo guztiak kenduz lagundu nahi du garapen jasangarria lortzen». Adiera horiek guztiek berdintzat jotzen dituzte garapena eta hazkunde ekonomikoa.

Bestalde, BTan, garapen jasangarriaren kontzeptuari hiru dimentsioko interpretazioa ematen zaio, alderdi ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa uztartzen baititu. Horixe da, Bermejoren ustez (2014), «garapen jasangarri» kontzeptuaren manipulaziorik handiena, azkenean «jasangarritasun» kontzeptuaren zentzua lausotu eta business as usual jokabidea justifikatzen baitu. Hau da, jasangarritasuna garapenaren ikuskera nagusiaren karakterizazio kosmetiko bat baino ez da. Dena den, hiru jasangarritasunen teoria hori —ekonomikoa, ingurumenekoa eta soziala— Europar Batasunaren, Munduko Bankuaren, ELGaren, Nazio Batuen Ingurumen Programaren eta abarren testuetan agertzen da.

Jasangarritasun-printzipioaren bilakaera, Nazio Batuen adierazpenen bidez

2030 Agendak arau-esparruan duen lekua testuinguruan kokatzeko, ildo horretako gertaera garrantzitsu batzuk aurkeztuko ditugu, hots, ingurumenari eta garapenari buruzko Nazio Batuen konferentzia nagusien ondorio diren adierazpenak:


- **1972ko Stockholmeko Adierazpenak** (A/CONF.48/14, 1972) agerian utzi zuenez, «giza ingurunea babestea eta hobetzea funtsezkoa da, eta eragina du herrien ongizatean eta garapen ekonomikoan». Ingurumen-arazo gehienak azpigarapenari egozten dizkio, eta honako hau jasotzen du: «Estatu guztien ingurumen-politikek [...] hazkundearen potentziala handitzea izan beharko lukete helburu» —esan nahi baita, hazkunde ekonomikoa—, «garapenaren eta giza ingurunea babesteko eta hobetzeko beharraren arteko bateragarritasuna» bermatzeko.
- **Garapenerako eskubideari buruzko 1986ko Adierazpenak** (A/RES/41/128, 1986) garapen ekonomikoa giza eskubidetzat hartu behar dela adierazten du. Gai ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak barne hartzen dituen kontzeptu integraltzat jotzen da garapena, eta, jasotzen denez, «biztanleria osoaren ongizatea etengabe hobetzeko joera du». Garapena eskubide gisa definitzean, problematiko bihurtzen du garapen menderatzailearen kontzeptua zalantzan jartzea, kontzeptu hori araudiaren ikuspuntutik babesten delako.
- **1992ko Rioko Adierazpena** (A/CONF.151/26, 1992) printzipio-multzo bat izan zen, juridikoki indar loteslerik gabea. Hala ere, garrantzia izan zuen, jasangarritasunaren historian inflexio-puntu

bat izan zelako; izan ere, Brundtland txostenak planteatutako «garapen jasangarriaren» ikuskera orokortu zuen eta izen bereko adierazpenean definitutako «garapenerako eskubidearen» ikuskera testuinguruan ipini zuen. Rioko Adierazpenaren 3. Printzipioan, premia hau dago jasota: «garapenerako eskubidea egungo eta etorkizuneko belaunaldien garapen- eta ingurumen-beharrei berdintasunez erantzuteko moduan gauzatu behar da». Gainera, Adierazpenak hau dio: «garapen-prozesuak ingurumenaren babesa hartu beharko du barne». Gainera, lehen aldiz aipatu ziren «erantzukizun komunak eta bereiziak»; hau da, herrialde garatuek —ordura arte kutsatzaileenak— eta gainerako herrialdeek modu bereizian eman beharko lituzkete kontuak. Bestalde, Adierazpenean aurrerapen txiki bat suma daiteke: «kontsumo- eta produkzio-ereduak aldatu» nahi ditu, «ingurumenaren aldetik jasanezintzat hartzen baitira»... Dena den, aurrerapen hori, azkenean, diskurtso-mailako amore-emate bat baino ez zen izan, eredu-aldaketa hori «merkataritza eta nazioarteko inbertsioak desitxuratu gabe» egin behar baita, Adierazpenean bertan aditzera ematen denez. Horrek esan nahi du egiturazko ordena politikoa eta ekonomikoa aldaezina dela, eta agerian uzten du agenda globala adosteko botere-borrokak zeudela.

- **2000ko Milurtekoko Adierazpenak** (A/RES/55/2, 2000), Milurtekoko Garapen Helburuak definitu eta zehaztu zituenak, zuzenean aipatzen du «erantzukizun kolektiboa» ingurumenaren babesaren arloan. Adierazpen horrek berretsi egin zuen garapen jasangarriarekiko konpromisoa —hots, ez zuen zalantzan jarri garapenaren ikuskera nagusia—, eta, «produkzio- eta kontsumo-jarraibide jasanezinak»

aldatzeko ideia azpimarratu bazuen ere, aurreko adierazpenaren emaitza bera lortu zen: agenda globala diseinatzeaz arduratzen ziren eragileetako batzuen borondate onaren adierazpide bat besterik ez zen izan, baina helburua ez zen inoiz gauzatu, berekin ekarriko bailuke garapen-eredu nagusiaren aurka egitea.

- **2002ko Johannesburgeko Adierazpenak** (A/CONF.199/20, 2002) berretsi egin zituen aurrekoek garapen jasangarriarekin eta erantzukizun kolektiboarekin hartutako konpromisoak, guztion etorkizuna zaintzeko eta «garatzeko bidean» dauden herrialdeak euren kalteberatasun-egoeratik babesteko, ekonomia- eta ingurumen-mehatxuen aurrean.
- **Rio+20 Adierazpenak** (A/CONF.216/5, 2012), 2012koak, garapen jasangarri integralaren ideia berreskuratu zuen; horren arabera, jasangarritasunak hiru dimentsio ditu: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa. Hazkunde ekonomiko «jasangarri, inklusibo eta ekitatiboa» sustatu zuen, garapen jasangarria lortzeko, eta «ekonomia berdea» esamoldea sortu zuen; beste eufemismo bat da «ekonomia berdea», ingurumena esplotatzen duen eta bere funtsa aldatu nahi ez duen sistema ekonomiko bati buruzkoa baita.



2030 Agendaren ezaugarriak: botere transnazionala eta neoliberalismoaren gobernantza

Zenbait lanen arabera —Martínez Osés (2016, 2017), eta Martínez Osés eta Martínez Martínez (2015)—, 2030 Agenda (A2030) (A/RES/70/1, 2015) eskari transnazionalen agregatu bat da, eragileen —botere korporatibo transnazionala, estatuak, nazioarteko erakundeak eta gizarte zibileko erakundeak, nagusiki— eta haien garapen-ikuspegiaren arteko tentsioak islatzen dituenak. Hala, burutu gabeko prozesua da, askok bereganatu nahi duten espazio politiko bat, oraindik politikoki interpretatu gabea. Garapenaren nazioarteko ekonomia politikoaren ondorioz sortu da espazio hori, botere estrukturalaren transnazionalizazioa gero eta handiagoa den esparru batean. Horrek kontraesan eta gabezia asko argitzen ditu.

2030 Agenda aurreko adierazpenek bultzatutako garapen-paradigmaren agortzea ezaugarri duen garaiaren emaitza da. Hortaz, esan daiteke 2030 Agenda funtzionala dela garapen-paradigma nagusiaren hegemoniari dagokionez; alde batetik, ez ditu paradigma horren botere-posizioak mehatxatzen, eta, bestetik, hazkunde ekonomikoaren gehikuntzan, merkataritza-liberalizazioan eta finantza globalen desarauketan oinarritutako garapen-eredu bat ezartzen du maila globalean, hain zuzen ere.

Hala ere, 2030 Agendak ez dakar berekin eragile batzuek euren lehentasunak besteei alde bakarretik inposatzea. Gainera, elementu emantzipatzaileak ere baditu, eta horrek agerian jartzen du bai Agendaren funtsaren kontraesana, bai neoliberalizazio-prozesu totalizatzailearen eta horren aurka agertu diren erresistentzia jakin batzuen arteko lehia. Beraz, sektore pribatu transnazionalaren eraginaren ondorio da; horrenbestez,

Agendak aldarrikatzen duen ikuspegiaren azken helburuak garapen ekonomikoa izaten jarraitzen du, eta jarduketa-esparru orokorra alderdien borondatezkotasunean eta borondate onean dago oinarrituta. Interpretazioari ere irekita badago, ordea, eta horrek aukera ematen du jokoaren arauak ezartzen dituen botere estruktural horri aurka egiteko, nolabait.

Berritasun gisa, 2030 Agendak zenbait ulermen-eredu aldatu ditu jardunbide politikorik ohikoenei dagokienez, eta hiru printzipio gidari eta bi zeharkakotasun-ardatz sartu ditu (Martínez Osés, 2016):

- Printzipio gidariak: unibertsaltasuna, integralitatea —helburu guztiak dira garrantzitsuak— eta izaera eraldatzailea —posizio ekonomizistak alde batera uztera gonbidatzen du, eta hainbat eragilek egindako diagnostiko partekatu batetik abiatzen da—.
- Zeharkakotasun-ardatzak: jasangarritasun konbentzionalaren esparruan sortu da zeharkakotasuna, eta kolektiboen eta pertsonen berdintasuna sustatzen du. Ildo horretan, garapen jasangarrirako helburuekiko konpromisoak berekin dakar munduko herrialde bakar bat ere ezin dela behar bezala garatutzat jo. Hori dela eta, pobretze-, bazterketa- eta inekitate-logikak nazioz haraindikoak direla onartzen da, eta, beraz, herrialde guztietan daudela.

Beraz, nagusi den garapen-eredua zalantzan jartzen ez duen jasangarritasunaren ikuskera baliozkotzen jarraitzen du 2030 Agendak. Orobat, hautabide batean dago: batetik, ohiko adierazpenek bezala jardun dezake, baina aurreko atalean jasotako adierazpenen tradizioari diskurtso normatibo bat erantsita, eta, beste batetik, bere bultzada balia dezake indarrean dagoen garapen nozioaren oinarri praktikoak eta diskurtsiboak zalantzan jarriko dituen esparru politiko berri bat eratzeke.

4 Erreferentzia bibliografikoak

Bermejo, R. (2014): “El concepto de desarrollo sostenible” en Bermejo, R.: *Del desarrollo sostenible según Brundtland a la sostenibilidad como biomimesis*, Bilbo, Hegoa.

Martínez Martínez, I. (2017): “La Agenda 2030, ¿compromiso o retórica transformadora?”, en *Pueblos – Revista de información y debate*, (2017ko hirugarren hiruhilekoa): 1-4.

Martínez Osés, P. J. (2016): “La Agenda 2030: Contradicciones, transformaciones y resistencias”, en *Boletín de recursos de información – Centro de Documentación Hegoa*, 49 (2016ko abendua): 1-12.

Martínez Osés, P. J. (2017): “Un análisis del poder en la Agenda 2030. Oportunidades para un cambio del paradigma de desarrollo”, en *Dossieres EsF*, núm. 26 (2017ko uda): 11-15.

Martínez Osés, P. J. y Martínez Martínez, I. (2015): “La Agenda 2030: ¿cambiar el mundo sin cambiar la distribución de poder?”, *Lan Harremanak* 33 (2. lib.): 73-102.

Scoones, I. (2016): *The Politics of Sustainability and Development*, Brighton, Institute of Development Studies.

Dokumentu ofizialak

A/CONF.48/14 (1972): *Giza Inguruneari buruzko Nazio Batuen Konferentziaren Adierazpena*. Washington DC: Nazio Batuen Batzar Nagusia.

A/RES/41/128 (1986): *Garapenerako eskubideari buruzko adierazpena*. Washington DC: Nazio Batuen Batzar Nagusia.

A/CONF.151/26 (1992): *Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rio de Janeiroko Adierazpena*. Washington DC: Nazio Batuen Batzar Nagusia.

A/RES/55/2 (2000): *Milurtekoko Adierazpena*. Washington DC: Nazio Batuen Batzar Nagusia.

A/CONF.199/20 (2002): *Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi-bilera*. Washington DC: Nazio Batuen Batzar Nagusia.

A/CONF.216/5 (2012): *Garapen Jasangarriari buruzko Nazio Batuen Konferentziaren Adierazpena*. Washington DC: Nazio Batuen Batzar Nagusia.

A/RES/70/1 (2015): *Gure mundua eraldatzea: Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda*. Washington DC: Nazio Batuen Batzar Nagusia.

5 Sekuentziazio didaktikoa

Irakaskuntza-unitate honetako proposamen didaktikoan, ezagutzaren eraikuntza kolektiboa da helburua; hain zuzen, 3. epigrafeko adierazpenetan garapenaren eta ingurumenaren kontzeptuei buruz ematen diren definizioetan egindako aurrerapen nagusiak azaldu beharko dituzte taldeek, denen artean aztertzeko zer-nolako bilakaera izan duten kontzeptu horiek denboran zehar eta nola aurkezten den haien lotura.

Horretarako, ingurumenari eta garapenari buruzko nazioarteko konferentzia bat simulatzea proposatzen da. Horretan, talde bakoitzak adierazpen baten elementu nagusiak aurkeztuko ditu, euskarri gisa poster zientifiko bat erabilita. Gainera, kongresu zientifikoaren formatuari jarraituko zaio aurkezpenak egiteko. Hau da, poster bakoitzaren ondoan, hura landu duen taldeko ordezkari bat egongo da, eta horrek azalduko die lana gainerako ikasleei. Ondoren, hurrengo taldeko ordezkariak egingo du aurkezpena; hots, poster batetik hurrengora igaroko da, adierazpenen ordena kronologikoari jarraituz. Horri esker, beste zentzu bat emango zaio ikasgelaren espazioari, eta eztabaida- eta elkarrizketa-foro bihurtuko da, ohikoa ez den formatu batean.

Jarduera: posterren aurkezpenak ingurumenari eta garapenari buruzko konferentzia batean

Deskribapena eta xedea

Posterrak asko erabiltzen dira komunitate akademikoan, eta posterren aurkezpenak jasotzen dira kongresu gehienek egitarauetan. Poster zientifikoek zehaztasunez eta modu erakargarrian laburbiltzen dute informazioa edo ikerketa, hura ezagutarazten eta eztabaida sortzen laguntzeko.

Posterretan, testu labur bat konbinatzen da taula, grafiko, irudi eta datuak aurkezteko beste formatu batzuekin. Konferentzia batean, ikertzailea zutik dago posterraren ondoan, eta gainerako parte-hartzaileak aurkezpena ikustera eta egilearekin hitz egitera hurbil daitezke.

Prestakuntza

Irakasleak aldeztu aurretik jakinarazi beharko du jarduera hori kontuan hartuko dela irakasgaia ebaluatzeko. Konferentzia egin baino hilabete lehenago, gutxienez, 4 eta 6 pertsona bitarteko taldeak osatu behar dituztela esango die irakasleak ikasleei. Ez da komeni taldeek kide gehiago izatea; hau da, taldeen tamaina txikia errespetatu beharko litzateke. Eskolan ikasle gutxi badago, bikoteka egin daiteke jarduera.

Saio hori bera erabil daiteke jardueraren aurkezpena egiteko.

Gomendagarria da jarraibideak PDF edo Word formatuko dokumentuen bidez aurkeztea. Jarraibideak ikasleen eskura jarri behar dira une oro, campus birtualaren edo antzeko plataformen bidez, behar dutenean kontsulta ditzaten. Jarraibide hauek adibide gisa erabil daitezke:

Ikerketa-galdera

Posterren aurkezpenetan, ingurumenari eta garapenari buruzko Nazio Batuen adierazpenen elementu nagusiak aipatuko dira.


Taldean, adierazpen bakoitzean jasotako garapen kontzeptua eta jasangarritasunari buruz egiten diren erreferentziak identifikatu behar dira. Poster bakoitzean, informazio hau eman behar da:

- i. Aurkezten den adierazpenaren testuinguru historiko-politiko.
- ii. Hautatutako adierazpenean erabiltzen diren garapen, ingurumen edo jasangarritasun kontzeptuak identifikatzea eta definitzea.
- iii. Konferentzian lortutako aurrerapen edo mugarri nagusien — garapenarekin eta jasangarritasunarekin lotutakoak— laburpena, horien emaitza baita aukeratutako adierazpena.

Formatua:

- A2 tamaina, inprimatua (posterrak gelan zintzilikatuko baititugu).
- Hedadura: posterraren testuak 800 hitz izango ditu gehienez.
- Diseinua: librea (ikusi adibideak beheago).
- Entregatzeko data: ikasgelan konferentzia egiten den eguna.

Jarraibide horiekin batera, informazio osagarri hau aurkeztu beharko litzateke:



Nola diseinatu poster zientifiko bat?

Zer hartu behar dugu kontuan posterra egiteko orduan?

- Informazio garrantzitsua 2-3 metroko distantziatik irakurtzeko modukoa izango da.
- Izenburuak laburra eta erakargarria izan behar du.
- Hedadura: 800 hitz (gehienez).
- Testuak argia eta zuzena izan behar du → baina egileok oso ondo ezagutu behar duzue azaldutako informazioa. Horrek esan nahi du egileok ikerketa ahoz aurkezteko gai izan behar duzuela, nahiz eta informazio gehiena posterrean agertu ez, lekurik ez dagoelako.
- Bineta, zenbaki eta izenburu/epigrafeei esker, errazagoa da testua irakurtzea.
- Grafikoak, koloreak eta iturriak eraginkortasunez erabili behar dira.
- Diseinuak koherentea eta argia izan behar du.
- Bibliografia eta erreferentziak sartu behar dira.

Nondik hasi?

Saiatu hiru galdera hauei erantzuten:


- Zein da nire ikerketa-proiektuaren aurkikuntzarik garrantzitsuen, interesgarriena edo harrigarriena?
- Nola parteka dezaket bisualki nire ikerketa konferentzian parte hartzen dutenekin? Taulak, grafikoak, argazkiak edota irudiak erabili behar ditut?
- Nire posterra osatzen duen zer informazio eman dezaket nire hitzaldian?

Zer programa erabil ditzaket?


- PowerPoint (Alabamako Unibertsitateko gida, posterrak PPT formatuan aurkezteko)
- Publisher
- Adobe Illustrator, Photoshop edo InDesign
- Canva
- Inkscape
- Gimp
- Gliffy
- Lovelycharts
- Lunacy
- DocHipo

Posterrik ohikoenen diseinuen adibideak:


a) Lineala («Irakurketa-fluxua»):



b) Hiru zutabeko aurkezpena:



Gaizki diseinatutako posterren adibide bat:



Poster zientifikoeekin lotutako erreferentziak eta webguneak (askoz ere gehiago daude online):

- <https://www.upf.edu/documents/270602823/278608043/Guia-1.-Poster-Cientifico-compressed.pdf/c8b5eae9-3b5c-0fac-ab34-721cae1b2461?t=1696492167188>
- <https://consejosocial.uva.es/wp-content/uploads/2021/10/Manual-Posterres-Cientificos.pdf>

Prozedura

Jarduera egiten den egunean, talde bakoitzak bere posterra jarri beharko du gelako hormetan. Posterrak ez dira elkarrengandik hurbilegi egongo, eta ez da beharrezkoa izango posterrak elkarren segidan edo kronologikoki ordenatzea. Adierazpenik zaharrena aurkezteaz arduratuko den taldea bere ikerketa-lana aurkezten hasiko da. Aurkezpen bakoitzak hamar minutuko iraupena izango du gehienez. Aurkezpena amaitutakoan, galderak, iruzkinak edo hausnarketak egiteko txanda zabalduko da, konferentzian parte hartzen duten gainerako ikasleek parte har dezaten.

Ondoren, ikasleak hurrengo adierazpena —ordena kronologikoan— ikertu duen taldearen posterrera hurbilduko dira, eta aurreko paragrafoan azaldutako prozedura berari jarraituko zaio. Ordena horretan egingo dira aurkezpenak, adierazpenik berrienera iritsi arte. Aurkezpen-txanda amaitu ondoren, talde bakoitzak azaldutako funtsezko elementuak laburbilduko ditu irakasleak —nahi izanez gero, aurkezpen bakoitzaren ondoren egin dezake—, garrantzizko alderdirik alde batera utz ez dadin.

Taldearen ezaugarrien arabera, freskagarriak eta mokaduren bat eraman daitezke ikasgelara, giro lasaia bideratzeko eta kongresu edo konferentzia zientifikoen ohiko testuingurua simulatzeko.

Oharrak

Jardueran, aurkeztutako edukiak laburbiltzeaz eta aurkezpen bakoitzaren funtsezko elementuak biltzeaz arduratuko da irakaslea.

6 Emaizten ebaluazioa eta balorazioa

Jarduera honetan, elkarren osagarriak diren bi ebaluazio-modalitate erabil daitezke aldi berean:

- a) Ebaluazio formatiboa, prozesuala edo jarraipenekoa. Prozesuan zehar egiten da, eta aukera ematen du jardueraren testuinguruan izandako bilakaera ezagutzeko, taldeek ikasgelan egiten duten lanaren jarraipena eginez. Halaber, prozesua berrikusteko eta, beharrezkoa izanez gero, birbideratzeko aukera ematen du, jardueran lan egin ahala ikasleengan identifikatzen diren premiei edo gabeziei buruzko informazioa ematen baitu.
- b) Ebaluazio sumatiboa edo azken ebaluazioa. Jardueraren helburuen lortze-mailari eta jarduerarekin lortu nahi izan denari buruzko informazioa ematen digu. Jardueraren emaitzak neurtzen ditu, eskuratutako ezagutzei eta bereganatutako edukiei dagokienez, eta jardueraren egokitasuna baloratzeko balio du. Ebaluazio formatiboarekin batera, jarduera berriro formulatzeko eta hurrengo edizioetan ikasturtearen beharretara egokitzeko erabil daiteke.

Irakasleek egin behar dituzte bai ebaluazio formatiboa bai ebaluazio sumatiboa. Ikasleen gaitasunak eta trebetasunak ebaluatzeko orduan, taldean lan egiteko eta laburbiltzeko gaitasunak hartu behar dira kontuan, bai eta diziplinartekotasunez lan egiteko eskuratutako trebetasunak ere.

Hona hemen [errubrika](#) bat, ikasleek lortutako ezagutzak ebaluatzeko irakasleek eredu gisa erabil dezaketena:

IRAKASLEEK IKASLEEN EZAGUTZAREN JABEKUNTZA EBALUATZEKO EREDU GISA ERABIL DEZAKETEN ERRUBRIKA

	Bete gabe	Txarra	Ona	Oso ona	Bikaina
Gairako garrantzitsuak diren kontzeptuak eta nozioak egoki erabiltzea	Ez ditu ikerketa-arlorako edo aztergairako garrantzitsuak diren kontzeptuak edo nozioak erabiltzen.	Egoki erabiltzen ditu ikerketa-arlorako edo aztergairako garrantzitsuak diren kontzeptuak eta nozioak, baina modu jeneralistan zerrendatu besterik ez du egiten, analisisasuarekin duten lotura zehaztu gabe.	Behar bezala erabiltzen ditu ikerketa-arlorako edo aztergairako garrantzitsuak diren kontzeptuak eta nozioak, eta analisi-kasura egokitzen ditu	Behar bezala erabiltzen ditu ikerketa-arlorako edo aztergairako garrantzitsuak diren kontzeptuak eta nozioak, analisi-kasura egokitzen ditu eta informazio gehigarriarekin osatzen ditu.	Behar bezala erabiltzen ditu ikerketa-arlorako edo aztergairako garrantzitsuak diren kontzeptuak eta nozioak, analisi-kasura egokitzen ditu, informazio gehigarriarekin osatzen ditu eta analisisa bere esperientziara eramaten du; hau da, ikaskuntza-prozesua adierazgarria izatea lortzen du.
Aurkezpen argia eta egokia	Lanaren aurkezpena desagokia da, eta ez du ordenarik, edo ez dago modu argi eta koherentean idatzita. Ez dago idazkirik; binetak bakarrik erabili dira.	Lanaren aurkezpena desagokia da, eta ez du ordenarik, edo ez dago modu argi eta koherentean idatzita. Idatzizko lana laburra da.	Lanaren aurkezpena egokia da, baina ez dago modu argi eta koherentean idatzita. Idatzizko lana laburregia edo gehiegizkoa da.	Lanaren aurkezpena egokia da, eta modu argi eta koherentean idatzita dago. Idatzizko lana egokia da.	Lanaren aurkezpena egokia eta ordenatua da, eta modu argi eta koherentean idatzita dago. Idatzizko lana aproposa da.
Egitura	Ez du egiturarik.	Egitura ahula: ideiak nekez ulertzen dira.	Oinarrizko egitura: ideiak nabarmendu dira.	Egitura ona: ideiak eta testuaren gorputza, horiekin lotuta.	Ideien egitura argia eta ordena egokia: erraz irakurri eta uler daiteke.
Talde-lana	Ez du parte hartzen/ez da sartzen eztabaida aktiboetan beste ikasle batzuekin. Oso ekarpen txikia egiten dio eztabaidatutako gaiari.	Oso konpromiso txikia du, edo bat ere ez, beste ikasleekiko eztabaidan. Oso ekarpen txikia egiten du eta nekez ulertzen ditu gaiaren funtsezko printzipioak.	Konpromiso txikia du baina funtsezko kontzeptuak ezagutzen eta ulertzen dituela erakusten du.	Asko laguntzen du gaian, eta harreman ona izan du ikaskideekin.	Asko lagundu du kontzeptu guztietan, eta aktiboki eta sakon jardun du ikaskideekin lankidetzan.

Orobat, autoebaluazio-ariketa bat egitea iradoki dakieke ikasleei, euren ikaskuntza-prozesuan izandako bilakaera balioesteko, eskuratutako ezagutzetan oinarrituta. Are gehiago, ikasleek beste taldeen ebaluazio kolektiboan lagun dezakete, aurkezpenek elkarren artean eta jarduera osoarekiko duten koherentziari erreparatuz.



Unibertsitateko
Irakaskuntzarako
MgE-ren
baliabideak



Economistas
sin Fronteras